



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2009ko abenduaren 16a

121. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzekoa. Ekonomia eta Ogasun Batzordeak onetsitako irizpena (2. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Galdera, Osasun Departamentuaren web-orrialdean Laguntza Soziosanitarioari buruzko Foru Plana argitaratuta egoteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (26. or.).

—Galdera, gaixoak laguntza espezializatura igortzeko eta bolanteak egiteko irizpideei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).

—Galdera, gazteen sexu-joerari buruz 2008ko irailaren 26an onetsitako mozioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).

—Galdera, podologiako laguntzari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (28. or.).

—Galdera, jakiteko Osasun Departamentuak noiz aldatuko duen 70/2003 Dekretua. Foru Diputazioaren erantzuna (29. or.).

—Galdera, hegaztien gripea dela-eta hartutako neurriei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (29. or.).

—Galdera, Bideko Autobiaren ustiapena dela-eta Parlamentuak onetsitako mozioa betetzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (31. or.).

—Galdera, Corellako Encofrados Martínez Mellado, S.L. enpresari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (32. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzekoa.

EKONOMIA ETA OGASUN BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA

Ekonomia eta Ogasun Batzordeak zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko Foru Lege proiektuari buruz onetsitako irizpena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut, Legebiltzarreko Erregelamenduko 137.3 artikuluan ezarritakoa betez. Proiektu hori 2009ko azaroaren 4ko 109. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2009ko abenduaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

IRIZPENA

Ekonomia eta Ogasun Batzordeak 2009ko abenduaren 10ean eta 14an eginiko bileretan onetsia.

Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko Foru Lege proiektua

SARRERA

Foru lege honen helburua da legezko arau batzuk aldatzea. Horien artean hauek dira aipagarrienak: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko foru Legearen Testu Bategina, ekainaren 2ko 4/2009 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia; Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legea; Oinordekotzen eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko xedapenen Testu Bategina, abenduaren 16ko 250/2002 Legegintzako foru Dekretuaren bidez onetsia; Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko xedapenen Testu Bategina, apirilaren 26ko 129/1999 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia; Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorra; Nafarroako Foru Komunitateko

Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen tasa eta prezio publikoei buruzko martxoaren 27ko 7/2001 Foru Legea; Nekazaritzako Ustiategiaren Erregistroari buruzko Foru Legearen Testu Bategina, uztailaren 2ko 150/2002 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia; eta apirilaren 28ko 6/1997 Foru Legea.

Orobat aldatzen dira Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea eta Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta Katastroei buruzko azaroaren 21eko 12/2006 Foru Legea.

Foru lege honek Nafarroako Gobernuaren zerga politikaren oinarritzko jarraibideak finkatzen ditu. Politika hori gaur egungo egoera ekonomikoan kokatzen da, eta haren helburua da eragile ekonomikoei krisia gainditzeko laguntzeko ematen zaizkien zerga pizgarrien programazioaren eta aurrekontu-politika sendotu eta bermatzearen arteko oreka egokia lortzea.

Foru lege honek hamaika artikulua, bi xedapen gehigarri eta lau azken xedapen ditu.

1. artikulua bidez zenbait aldaketa egiten zaizkio Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bateginari. Testu bategin hori ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen.

Salbuetsita dauden errenta gehiago sartzen dira 7. artikuluan, hala nola, ibilgailuak, ordenagailu eramangarriak, telebistak, etxetresnak eta lurreko telebista digitala jasotzeko deskodegailuak erosteko diru-laguntza publikoak eta, orobat, etxebizitzaren isolamendu termikoa hobetzeko eta berokuntzarako sistema elektrikoak kendu eta, horien ordez, errendimendu handiko galdarak jartzeko laguntza publikoak.

Testu Bateginaren 60. artikulua aldatzen da, 6.000 eurotik gorako aurrezki-tasaren errenten karga igotzeko. Kopuru hori arte, 100eko 18ko tasa apli-

katuko da eta 6.000,01 eurotik aurrera karga-tasa 100eko 20koa izanen da.

62.5.1. artikulua testua aldatzen da, lanaren kenkaria aldatuko baita, 17.000 eurotik gorako etekin garbiak dituzten jarduneko langileentzat ezarritako 440 euroko kenkaria kentzeko. Horrenbestez, errenta baxuek kenkari hori izaten segituko dute, oso-osorik, baina 10.600 eurotik gora poliki-poliki jaitsiko da.

2. artikulua Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen zenbait manu aldatzen ditu.

Lehenbizi, elkarri lotutako pertsona edo entitateen arteko eragiketen ondoriozko arau-hauste eta zehapen berriak arautzen dira.

Arautze horren helburua da, batetik, foru araudiak egungo eskema orokorrari eustea, hots, arau-hauste arinak (formazko betebeharrak ez betetzea) eta arau-hauste larriak (batez ere, dirua sartzearen gaineko betebeharrak ez betetzea) bereizten dituen eskemari, eta bestetik, gure araudian horrelako arau-hausteengatik ezartzen diren zehapenen esparruaren barrenean egotea.

Bigarrenik, berrinbertsioak egitearen ondoriozko salbuespenei dagokienez, hamar urtetik bost urtera murriztu da berrinbertsioaren xedeko ondare-elementuak subjektu pasiboaren instalazioetan martxan egon behar izateko ezarritako epea, non eta Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren berariazko baimenik ez dagoen.

Hirugarrenik, enpresa txikientzako karga-tasak jaisten dira 2010. urtetik aurrera hasten diren zergaldietarako. Aurreko zergaldian bederatzi milioi eurotik beherako negozio-zifra garbia duten enpresentzat, karga-tasa 100eko 28tik 100eko 27ra jaitsi da. Aurreko zergaldian milioi bat euroko edo hortik gorako negozio-zifra garbia duten enpresentzat, karga-tasa 100eko 23tik 100eko 20ra jaitsi da.

Laugarrenik, lanpostua sortzeagatiko kenkaria 100eko 30 igoko da 2010. eta 2011. urteetan hasiko diren zergaldietan. Neurri honetaz baliatuko diren subjektu pasiboak hauek dira: enpresa txikitzat hartzen direnak (bederatzi milioi eurotik beherako negozio-zifra garbia dutenak) eta enpresa eta lanbide jarduerak egiten dituzten pertsona fisikoak, etekin garbia zenbatespen zuzenaren bidez kalkulatu badute eta, negozio-zifra garbiari dagokionez, aurreko baldintza berbera betetzen badute.

Azkenik, bosgarrenik, berrinbertsioagatiko salbuespenei edo Inbertsioetarako Erreserba Bereziari dagokienez, inbertsioa gauzatzeko epea luzatzen da. Izan ere, berrinbertsioa egiteko epeak (berrinbertsioagatiko salbuespenari dagokionez)

eta inbertsioa gauzatzeko epeak (Inbertsioetarako Erreserba Bereziari dagokionez) 2009. eta 2010. urteetan bukatzen diren kasuetan, subjektu pasiboek aukera izanen dute berrinbertsioa edo inbertsioa 2011ko abenduaren 31ra arte atzeratzeko.

3. artikulua bidez, Oinordekotzen eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko Testu Bateginaren puntu bat aldatzen da (testu bategin hori 250/2002 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen) eta salbuespen bat eransten da banako baten enpresa bat, lanbide negozio bat edo entitate bateko partaidetzak "inter vivos" dohainik eskuratzen diren kasuetarako.

4. artikulua ondare-eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergari buruzkoa da eta zenbait aldaketa egiten ditu zergaren araudian. Aipagarriena hipoteka partaidetzak, bonoak eta zedulak jaulki, eskualdatu, itzuli eta ezerezta-zeko egintzak salbuesteari dagokio.

5. artikulua zenbait aldaketa egiten dizkio Tributuari buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorrari.

Iruzurrari aurre egiteko borrokaren esparruan, arau-hauste mota gehiago sartzten dira. Horrela, bi arau-hauste arin gehiago eransten dira: batetik, nahitaez baliabide telematikoen bitartez egin beharreko zerga aitortenak paperean aurkeztea, eta bestetik, subjektu pasiboaren zerga betebeharrak betetzearen gaineko datu edo aurrekariak jakinarazi beharra ez betetzea.

Gainera, 68.c) artikuluan arau-hauste larri berri bat jasotzen da: zerga itzulketak bidegabeki eskatzea, autolikidazioetan edo eskaeretan datu aipagarriak eman gabe utziz edo datu faltsuak emanaz, diru-itzulketa lortzen ez bada ere. Laburbilduz, arau-hauste larritzat jotzen da zerga itzulketak bidegabeki eskatzea (diru-itzulketa lortzen ez bada ere), betiere ondoko bi inguruabar hauetako bat gertatzen bada: autolikidazioetan datu aipagarriak eman gabe uztea edo datu faltsuak sartzeta.

6. artikuluan zenbait aldaketa egiten zaizkio Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen tasa eta prezio publikoei buruzko martxoaren 27ko 7/2001 Foru Legeari, tasa batzuen tarifak eguneratzeko eta tasa berri batzuk ezartzeko, eskaintzen diren zerbitzu jakin batzuen ondorioz.

7. artikulua bidez, Nekazaritzako Ustiatzearen Erregistroari buruzko Foru Legearen Testu Bateginaren aldatzen da (uztailaren 2ko 150/2002 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen testu bategin hori), eta 8. artikuluan, NASUINSA sozie-

tate publikoaren zenbait jardueratarako salbuespen gehiago jasotzen dira.

9. artikulua bidez, Fundazioen eta Babes Jardueren Tributu Araubidea erregulatzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legearen akats tekniko bat zuzentzen da, izan ere, lege horren 22.1 artikuluan aipatzen zen zerga-oinarriaren murrizketa zentzurik gabekoa zen, hirugarrenei lagatzen zaizkien ondare-elementuetatik datozen errentak salbuetsita daudelako.

10. artikulua bidez Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeko 143.2 artikulua aldatzen da, eta 11. artikulua bidez, berriz, erredakzio berri bat ematen zaio Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta Katastroei buruzko azaroaren 21eko 12/2006 Foru Legeko 34.4 artikuluari.

Lehenengo xedapen gehigarrian Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen 27. artikuluan aipatzen ziren diruaren balioa zuzentzeko koefizienteak ezartzen dira, 2010. urtean hasten diren zergaldietarako. Bigarren xedapen gehigarrian ezartzen da sozietateen gaineko zergaren subjektu pasiboek aukera izanen dutela Inbertsioetarako Erreserba Berezian zuzkidurak egiteko, 2010eko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren lehenengo bi zergaldietan lortzen diren etekin kontura.

Azken xedapenetan lehenak, kirol-, kultur- eta laguntza-babesgatiko kenkari berezia handitzen du 2010. eta 2011. urteetan hasitako zergaldietarako; azken xedapenetan bigarrenak, berriz, Nafarroako Foru Komunitateko Diru-bilketaren Erregelamenduaren 59.1.b) artikulua aldatzen du, Nafarroako Zerga Ogasunaren diru-bilketa arloko politika malgutzera aldera, ordaintzera behartua dagoenak, zor baten gerorapena lortu ondoren, zerga itzulketa bat jasotzen duen kasuetarako.

Azken xedapenetan hirugarrenaren bidez gaitasuna ematen zaio Nafarroako Gobernuari foru lege hau garatzeko, eta laugarren azken xedapenak foru legearen indarra hartzea finkatzen du.

1. artikulua. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategina, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bateginaren ondoko manu hauek (ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen testu bategina) idazketa hau izanen dute hemendik aurrera:

Bat. 7. artikuluari y) letra erantsi zaio, 2009ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

“y) Ibilgailuak, ordenagailu eramangarriak, telebistak, etxetresnak eta lurreko telebista digitala jasotzeko deskodegailuak erosteko diru-laguntza publikoak.

Halaber, baoak aldatuz etxebizitzaren isolamendu termikoa hobetzeko laguntza publikoak (leihoak, balkoietako ateak eta sabai-leihoak aldatzekoak), eta orobat, galdara, berogailu edo berokuntzarako sistema elektrikoak kendu eta horien ordean errendimendu handiko galdarak jaritzeko laguntza publikoak.”

Bi. 54. artikulua. 2009ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

“54. artikulua. Aurrezkiaren zati berezia

1. Zerga-oinarriko aurrezkiaren zati berezia honako hauek osatuko dute:

a) Foru lege honen 28. eta 29. artikuluetan eta 30. artikuluko 3. idatz-zatiko e) letran aurreikusitako ondasun higigarrien kapitalaren etekinak.

Dena dela, foru lege honen 29. artikuluan aurreikusitako ondasun higigarrien kapitalaren etekinak, entitate lotu bati laga zaizkion kapital berekien zati bati dagozkionak, zerga-oinarriaren zati orokorrean sartuko dira, subjektu pasiboaren partaidetzari dagokion zatian, hain zuzen ere, entitate horren funts berekiak bider hiru egin eta lagatako kapitala berdindu arte dagoen soberakinari dagozkionak sartuko dira.

Soberakin hori kalkulatzeko, kontuan hartuko dira, batetik, entitate lotuaren funts berekien zenbatekoa, zergaren sortzapen egunaren aurretik itxitako azkeneko ekitaldiari dagokion balantzean agertzen denaren arabera, eta bestetik, egun horretan berean subjektu pasiboak duen partaidetzaren ehunekoa.

Lotura ez bada bazkideen edo partaideen eta entitatearen arteko harremanean oinarritzen, kontuan hartu beharreko partaidetza-ehunekoa 100eko 5 izanen da.

b) Ondare-elementuen eskualdaketetan gertatzen diren ondare-gehitze eta gutxitzeak. Aurrezkiaren zati berezian sartuko dira, orobat, ohiko etxebizitza eskuratzeagatik edo zaharberritzeagatik kapital moduan eskuratutako diru-laguntzen ondoriozko ondare-gehitzeak.

2. Aurrezkiaren zati berezia ondoren aipatzen diren saldoak batzetik ateratzen den saldo positiboak osatuko du:

a) Zergaldi bakoitzean, aurreko idatz-zatiko a) letran aipatzen den ondasun higigarrien kapitalaren etekinak, aurrezkiaren zati berezian sartzen direnak, elkarrekin eta ez beste ezerekin integratu eta konpentsatu ondoren ateratzen den saldo positiboa.

Integrazioaren eta konpentsazioaren emaitzak saldo negatiboa baldin badu, horren zenbatekoa hurrengo lau urteetan gertatzen den saldo positiboarekin bakarrik konpentsatzen ahalko da.

b) Zergaldi bakoitzean, aurreko idatz-zatiko b) letran aipatzen diren ondare-gehitze eta gutxitzeak, zergaldi horrexetan gertatzen direnak, elkarrekin integratu eta konpentsatu ondoren ateratzen den saldo positiboa.

Integrazioaren eta konpentsazioaren emaitzak saldo negatiboa baldin badu, horren zenbatekoa hurrengo lau urteetan gertatzen den saldo positiboarekin bakarrik konpentsatzen ahalko da.

3. Aurreko idatz-zatian aurreikusitako konpentsazioak hurrengo ekitaldietako bakoitzean onartzen den gehieneko kopurua adinakoak izanen dira eta ezin izanen dira aurreko lerroaldean aipatzen den epetik kanpora egin, ondorengo urteetako etekin negatiboari edo ondare gutxitzei erantsiz.”

Hiru. 60. artikulua. 2010eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

“60. artikulua. Aurrezkiaren likidazio-oinarri bereziaren karga.

Likidazio-oinarria.	Tasa aplikagarria-Ehunekoa
6.000 euro bitarte	18
Likidazio-oinarriaren hondarra, 6.000,01etik gora	21

Lau. 62.5.1 artikulua. 2009ko abenduaren 31n bukatzen diren zergaldietatik aurrerako ondorioekin.

“1. Lan etekinak lortzen dituzten subjektu pasiboek diru-kopuru hauek kentzen ahalko dituzte:

a) 9.100 euroko edo hortik beherako lan etekin garbiak dituzten subjektu pasiboak: 1.290 euro.

b) 9.100,01 eta 10.600 euro bitarteko lan etekin garbiak dituzten subjektu pasiboak: 1.290 euro ken eragiketa honen emaitza: etekin garbi horiek ken 9.100 euro eta, horren emaitza, bider 0,1.

c) 10.600,01 eta 17.000 euro bitarteko lan etekin garbiak dituzten subjektu pasiboak: 1.140 euro ken eragiketa honen emaitza: etekin garbi horiek ken 10.600 euro eta, horren emaitza, bider 0,06875.

d) 17.000 eurotik gorako lan etekin garbiak dituzten subjektu pasiboak: 700 euro”

Bost. Indarrik gabe uzten dira hogeita seigarren eta hogeita zazpigarren xedapen gehigarriak. 2010eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

2. artikulua. Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legea.

2010eko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietarako ondorioekin, eta deusetan galarazi gabe Bat, Bederatzi, Hamabost, Hamasei eta Hemezortzi idatz-zatietan ezarritakoa, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen artikulua hauek testu hau izanen dute:

Bat. 20.1 artikulua. Bosgarren lerroaldea. 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietarako ondorioekin.

“Idatz-zati honetan ezarritako baldintzetan, diferentzia hori zergatik kentzen ahalko da, partaidetzaren arabera, irabazi eta galeren kontuan egotzi behar izan gabe, baldin eta baloreak taldeko edo sozietate taldeaniztuneko entitateen edo entitate elkartuen kapitaleko partaidetza adierazteko badira, merkataritzako legediaren arabera, eta betiere partaidetzaren balioa ken aurreko zergaldietako kenkarietan sartutako kopurua parte hartzen den entitatearen funts berekietako balioa baino handiagoa bada, partaidetzari dagokion ekitaldia ixten denean. Balio hori zuzendu eginen da erosketa egiten denean dauden isilbidezko gainbalioak aplikatuz, balorazioa egiten denean irauten badute. Diferentzia kengarriaren zenbatekoa ezin da izan aipatutako eragiketa horren soberakina baino handiagoa. Kenkari hau aplikatzearen ondorioetarako, parte hartzen den entitatearen funts berekien zenbatekoa murriztu edo handituko da, azken entitate

horrek taldeko edo sozietate taldeaniztuneko beste entitate batzuetan edo beste entitate elkartu batzuetan duen partaidetzagatik, idatz-zati honetan ezarritakoaren arabera, aplikatu dituen kenkariak edo doikuntza positiboak adina, kasuan-kasuan.”

Bi. 28. artikulua. errubrika.

“28. artikulua. Eragiketa lotuak: balorazio arauak, dokumentazioa, arau-hausteak eta pertsona edo entitate lotuen kontzeptua”.

Hiru. 28.2 artikulua.

“2. a) Pertsona edo entitate lotuek Zerga Administrazioen eskura izan beharko dute erregulaziorik ezartzen den dokumentazioa. Era berean, administrazio horrek eskatuz gero, dokumentazio hori aurkeztu beharko diote.

b) Idatz-zati honetako a) letran adierazten den dokumentazioa ez aurkeztea, osagabea edo zehaztugabea izatea edo datu faltasuekin aurkeztea zerga arloko arau-hauste arina da, Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorraren 67.1.b) artikuluan adierazi direnetakoa.

c) Sozietateen gaineko zergan, pertsona fisiko-errentaren gaineko zergan edo ez-egoiliarren errentaren gaineko zergan merkatuko balio normala ez aitortzea zerga arloko arau-hauste larria da, horren ondorioz, Zerga Administrazioak balorazioa zuzendu behar baldin bada eta Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorraren 68. artikuluko a), c) edo d) letretan aipatzen diren jokabideetako bat tartean bada.

Arau-hauste larri honengatik ezarriko den zehapena, gutxienez, Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorraren 72.2 artikuluan adierazitako arau-hauste arinagatik jarriko litzatekeen zehapenaren bikoitza izanen da.

d) Aurreko b) letran adierazitako zerga arloko arau-hauste arina sortzen duen ez-betetzea egin ez bada, eta aurkeztutako dokumentazioaren arabera merkatuko balioa aitortu baldin bada, ez da aurreko c) letran adierazitako zerga arloko arau-hauste larritzat joko, baldin eta Zerga Administrazioak balioa zuzentzeko eragiketa bat egin behar baldin bada sozietateen gaineko zergari, pertsona fisiko-errentaren gaineko zergari edo ez-egoiliarren errentaren gaineko zergari loturiko eragiketetatik, baina balio-zuzenketa horren ondoriozko oinarrien zatian.

e) Zenbaki honetan eta Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorraren 72.2 artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, ondoko azpiletretan agertzen diren kontzeptu eta termino

bakoitza datuz hartuko da, eragiketa lotuak egiten dituzten pertsona edo entitateei buruzkoak badira, betiere, zuzenean edo zeharka, subjektu pasiboak egindako eragiketetan eragina baldin badute:

a) Izen-deiturak edo sozietatearen izena edo izen osoa, helbide fiskala eta identifikazio fiskaleko zenbakia.

b) Eragiketen izaeraren, ezaugarrien eta zenbatekoen azalpen zehatza.

c) Ondasun higiezin, patenteen, marken, merkataritza izenen eta gainerako aktibo ukiezinen titulartasuna, haiek erabiltzearen ondoriozko kontraprestazioen zenbatekoa adierazita.

d) Magnitudeak, ehunekoak, ratioak, fluxuen deskontuei aplikatzen zaizkien tasak, aurreikuspenak eta balioa zehazteko erabiltzen diren gainerako zenbatekoak, baldin eta egiten den eragiketa negozioen eskualdaketa baldin bada edo entitate-etako funts berekietako parte-hartzea adierazten duten baloreen edo partaidetzen eskualdaketa, eta balore horiek merkatu arautuetan negoziatzeko modukoak ez badira.

e) Kostuak banatzeko erabakiak, zerbitzuak emateko kontratuak, baloraziorako aurretiazko akordioak eta adiskidetasunezko prozedurak.

f) Taldearen antolaketa- eta eragiketa-egituraren azalpena, baita pertsona edo entitate bakoitzak dituen eginkizunak eta bere gain hartzen dituen arriskuak ere.

g) Balorazioa egiteko aukeraturiko metodoaren hautapenaren azalpena, baita metodoan aplikatzeko moduaren eta metodo horren ondorioz ateratzen diren balioak edo balio-tarteak zehazteko moduaren azalpena ere.

h) Transferentzia-prezioen arloan taldeak jorratzen duen politikaren azalpena, lehia askearen printzipioarekin bat datorrela frogatzeko.”

Hiru bis idatz-zati berria. 36.1. artikuluko 1. lehen lerrokada.

“1. Ez dira zerga-oinarrian sartuko ibilgetu materialaren ondare elementuetatik, ukiezinetik eta ondasun higiezinetan egindako inbertsioetatik doan eskuratutako errentak –edo elementu horietatik lortutako errentak, baldin eta aktibo ez korrontetzat sailkatu badira, transmisioaren aurretik saltzeko mantendutakoak–, entitatearen ustiatze ekonomikoari lotuak egon eta, gutxienez ere, urtebetez funtzionamenduan egon badira eskualdaketa aurreko hiru urteetan, monetaren balio-galaren zenbatekoa zuzendu ondoren, baldin aipatu eskualdaketen zenbatekoa esandako ondare ele-

mentuetako edozeinetan berriz inbertitzen bada ondare elementua entregatu edo eskura jarri baino urtebete lehenagotik ondoko hiru urte arteko epean”

Lau. 36.2 artikulua.

“2. Zerga pizgarri hau aplikatu ahal izateko, berrinbertsioaren xedeko ondare-elementuak bost urtez egon beharko dira martxan subjektu pasiboren instalazioetan, salbu eta Ekonomia eta Ogasun Departamentuak berriazko baimena ematen badu 8. zenbakian xedatutakoaren arabera, justifikatutako galera bat gertatzen bada edo elementu horien erabilera-bizitza laburragoa bada. Elementuak epe hori bukatu baino lehen eskualdatuz gero, salbuespen egoera galduko da, eta 6. zenbakian aurreikusitakoa aplikatuko da, salbu eta lortzen den dirua berriz berrinbertitzen bada 1. zenbakian ezarrita dagoen bezala.”

Bost. 50.1.b) artikulua, lehenengo lerroaldea.

“b) 100eko 27, enpresa txikientzat.”

Bost bis idatz-zati berria. 50.1.b) artikuluko a) azpi-letraren laugarren lerrokada.

Hona kendutako laugarren lerrokadaren testua:

“Aurreko lerroaldean agintzen denari begira, Merkataritza Kodearen 42. artikuluko kasuak direla juzgatuko da Urteko Kontu Bateratuak Egiteko Arauen I. kapituluko 1. atalean aipatzen direnak (abenduaren 20ko 1815/1991 Errege Dekretuak onetsitako arauak)”

Sei. 50.1.b) artikulua, azkeneko lerroaldea.

“b) letran xedatu dena gorabehera, enpresa txikiaren izaera badu, aurre-aurreko ekitaldiko negozio-zifraren zenbateko garbia milioi bat eurokoa edo gutxiagokoa izan denean karga-tasa 100eko 20koa izanen da.” a) azpiletran aurreikusitako kasuetan, milioi bateko zifra hori taldea osatzen duten entitate guztiei dagokie. b) azpiletraren kasuan, onartuko da entitatearen partaidetzaren 100eko 25 baino gehiago aurre-aurreko ekitaldian milioi bateko edo hortik beherako negozio-zifro garbia izan duten entitateek izatea, dela zuzenean dela zeharka.”

Zazpi. 50.2.d) artikulua.

“d) Lanbide elkargoak, enpresaburuen elkarteak, ganbera ofizialak eta langileen sindikatuak.”

Zortzi. 50.2.e) artikulua.

“e) Irabazi-asmorik gabeko entitate eta erakundeak, betiere legezko ordezkarietzako karguak doakoak badira eta, hala badagokio, kasuan kasuko organoaren aurrean kontu eman behar baldin

badute, entitate horiek ez baitute aukerarik Fundazioen eta Babes Jardueren Tributu Araubidea erregulatzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legean ezarritako zerga araubidez baliatzeko.”

Zortzi bis idatz-zati berria. 50.3 artikulua.

“3. Ondoko hauek 100eko 17ko zerga ordainduko dute:

a) Zerga arloan babestuak dauden sozietate kooperatiboak, kooperatibatik kanpoko emaitzei dagokienez izan ezik, emaitza horiei artikulua honetako 1. idatz-zatian aipatutakoaren arabera dagokien tasa orokorra aplikatuko baitzaie.

b) Martxoaren 24ko 4/1997 Legeak araututako lan-sozietateak, baldin eta lortzen dituzten mozkinen 100eko 25 sartzan badute gutxienez ere Erreserbako Funts Berezira, salbu sozietatearen jardura berariazkoei atxikirik ez dauden ondare-elementuetatik ateratzen diren errentei dagokienez, horiei artikulua honetako 1. idatz-zatian aipatutakoaren arabera dagokien tasa orokorra aplikatuko baitzaie.

Hala behar izanez gero, kontabilitatearen emaitza negatiboa denean eta oinarri likidagarria positiboa, 100eko 17ko zerga tasa aplikatuko da.”

Bederatzi. 50.5.c) artikulua. 2009ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietarako ondorioekin.

“c). Lege horretan araututako higiezin inbertsiorako sozietateak eta higiezin inbertsiorako funtsak, hurrengo d) letran aipatzen direnak ez bezalakoak direnak, betiere eskatzen den akziodunen edo partaideen kopurua, gutxienez, lege horren 5. eta 9. artikuluetako laugarren idatz-zatietan aurreikusitakoa baldin bada, eta inbertsio kolektiboko erakunde ez-finantzarioak izanik, haien helburu eskusiboa edonolako hiri ondasun higiezinetan inbertitzea baldin bada, gero errentan emateko.

Zenbaki honetan aurreikusitako karga-tasa aplikatzeko beharrezkoa izanzen da aurreko leroaldean aipatutako inbertsio kolektiboko erakundeen aktiboa osatzen duten ondasun higiezinak ez berraztertzea eskuratzen direnetik hiru urte igaro arte, non eta Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak, salbuespen gisa, berariazko baimena ematen ez duen.

Ondasun higiezin horiek c) letran ezarritako gutxienezko epea baino lehen eskualdatuz gero, eskualdaketa horren ondoriozko errentari zergaren karga-tasa orokorra aplikatuko zaio. Gainera, entitateak, ondasuna eskualdatzen den zergaldiko kuotarekin batera, beste zenbateko bat ere ordain-

du beharko du, hots, c) letran aurreikusitako araubidea aplikatu behar zen zergaldi bakoitzean higiezinari dagozkion errentei honako hau aplikatzearen ondoriozkoa: kasuan kasuko zergaldian indarra zuen karga-tasa orokorraren eta 100eko 1eko tasaren arteko diferentzia, deusetan galarazi gabe bidezko diren berandutza interesak, gaitzarak eta zehapenak.

c) letra honetan ezarritakoa aplikatuko da, bakar-bakarrik, sozietatearen estatutuarekin irabazirik ez banatzea ezarrita badago.”

Hamar. 74 artikulua.

“74. artikulua. Atxikipenen, konturako diru-sarreraren eta ordainketa zatikatuen kenkaria.

1. Kuota osoari hobarien eta kenkarien zenbatekoa kentzearen ondoriozko kuotan ondoko konturako ordainketa hauek kentzen ahalko dira:

- a) Benetan egin diren konturako atxikipenak.
- b) Konturako diru-sarrerak.
- c) Ordainketa zatikatuak.

2. Konturako ordainketa hartuko dira eta, horrenbestez, kengarriak izanen dira jardura ekonomikoan gainera zergaren ordaindutako udal kuota, betiere subjektu pasiboen negozio-zifra garbia 2.000.000 eurotik beherakoa bada, zenbait zerga hein batean aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko martxoaren 17ko 16/2003 Foru Legearen bederatzigarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera.”

Hamaika. 117.2.b) artikulua.

“b) Tributazio araubide hau aplikagarri den zergaldiko lehenengo egunean, beste sozietate baten edo batzuen kapital sozialaren 100eko 75eko edo gehiagoko partaidetza izatea, zuzenean edo zeharka, edo kapital sozialaren 100eko 70eko edo gehiagoko partaidetza, betiere merkatu arautu batean negoziatzera onartzen diren akzioak dituzten sozietateak baldin badira.”

Hamabi. 119 artikulua.

“119. artikulua. Zeharkako jabetza kalkulatzeko.

1. Sozietate batek beste sozietate baten kapital sozialaren 100eko 75 edo gehiago badu edo, merkatu arautu batean negoziatzeko onartzen diren akzioak dituzten sozietateen kasuan, 100eko 70 gutxienez, eta bigarren sozietate hori egoera berean baldin badago hirugarren sozietate bati dagokienez, eta horrela bata bestearen atzetik, lehenbiziko sozietateak besteetan duen zeharkako partaidetza kalkulatzeko, kapital sozialean dituen partaidetza-ehunekoak biderkatuko dira. Hortaz,

zeharka partizipatua dagoen sozietateak talde fiskalean integratzeko aukera eta beharra izateko, biderkadura horien emaitza, gutxienez, bere kapital sozialaren 100eko 75 izan beharko da edo, merkatu arautu batean negoziatzeko onartzen diren akzioak dituzten sozietateen kasuan, 100eko 70. Gainera, beharrezkoa izanen da tarteko sozietate guztiak talde fiskalaren barrenean egotea.

2. Talde fiskal batean zeharkako eta zuzeneko partaidetza harremanak badaude, sozietate batek beste batean duen guztirako partaidetza kalkulatzeko, hots, lehenbiziko sozietateak zuzenean edo zeharka kontrolatzen duen sozietate batean duena, zuzeneko eta zeharkako partaidetza-ehunekoak batuko dira. Sozietate partizipatuak talde fiskalean integratzeko aukera eta beharra izateko, batura hori, gutxienez, kapital sozialaren 100eko 75 adinakoa izanen da eta, merkatu arautu batean negoziatzeko onartzen diren akzioak dituzten sozietateen kasuan, 100eko 70 adinakoa gutxienez.

3. Sozietateen arteko harremanean elkarrekiko partaidetza, partaidetza zirkularra edo konplexua badago, datu objektiboen bidez frogatu beharko da kapital sozialaren 100eko 75eko edo gehiagoko partaidetza duela, eta, merkatu arautu batean negoziatzeko onartzen diren akzioak dituzten sozietateen kasuan, 100eko 70ekoa edo handiagoa.”

Hamahiru. 152.c) artikulua.

“c) Lanbide elkargoak, enpresaburuen elkarteak, ganbera ofizialak eta langileen sindikatuak.”

Hamalau. Hamaseigarren xedapen gehigarria gehitzea.

“Hamaseigarren xedapen gehigarria. Alderdi politikoen zerga araubidea sozietateen gaineko zergan.

1. Zerga ordaintzetik salbuetsita dauden errentak.

Alderdi politikoen beren berriazko xedeko edo helburuko jarduerak finantzatzeko lortzen dituzten errentengatik ez dute sozietateen gaineko zerga ordaindu beharrik izanen, zenbaki honetan ezarritzen denari jarraikiz.

Salbuespena ondoko ondare-gehitze eta etekinetan aplikatuko da:

Lehen. Bazkideek ordaindutako kuota eta ekarpenak.

Bigarrena. Alderdi Politikoen Finantziarioari buruzko uztailaren 4ko 8/2007 Lege Organikoan xedatutakoaren arabera jasotzen dituzten dirulaguntzak.

Hirugarrena. Pertsona fisiko edo juridikoek egiten dituzten dohaintzak eta, orobat, dohainik egindako eskurapenen ondorioz gertatzen diren ondare-gehitze guztiak.

Laugarrena. Alderdiei dagozkien jardueretatik lortutako etekinak. Alderdien beraien ustiapen ekonomikoetatik datozen etekinak badira, salbuespena Ekonomia eta Ogasun Departamentuak adierazi beharko du berariaz.

Salbuespena, orobat, alderdi politikoen xedari edo helburuari atxikita dauden ondare edo eskubideen kostu bidezko eskualdaketetatik datozen errentei ere aplikatuko zaie, betiere besterentzen den produktua bere helburuari edo xedari loturiko inbertsio berrietara edo alderdiaren jarduerak finantzatzeko bideratzen bada, zergaren araudian ezarritako epeetan.

Bosgarrena. Alderdi politikoen ondarea osatzen duten ondasun eta eskubideetatik datozen etekinak.

2. Karga-tasa, atxikipekin ez duten errentak eta aitorpena egin beharra.

Atxikipekin ez duten errentei dagokien likidazio oinarri positiboari 100eko 25eko karga-tasa aplikatuko zaio.

Foru lege honen bidez salbuesten diren errentei ez zaie konturako diru-sarrerarik edo atxikipekin eginen.

Erregelamendu bidez alderdi politikoen egiaz-tatzeko prozedura finkatuko da, atxikipekin egin beharretik salbuestearen ondorioetarako.

Alderdi politikoen sozietateen gaineko zergaren aitorpena aurkeztu eta sinatu beharra dute, salbuetsita ez dauden errentei dagokiena.

3. Xedapen gehigarri honetan aurreikusita ez dagoen orotan, sozietateen gaineko zergaren araudia aplikatuko zaie alderdi politikoei.”

Hamabost. Hamazazpigarren xedapen gehigarria gehitzea.

“Hamazazpigarren xedapen gehigarria. Enplegua sortzeagatik kenkaria 2010. eta 2011. urteetan hasten diren zergaldietarako.

2010. eta 2011. urteetan hasten diren zergaldietan, 71. artikuluan 1., 2. eta 3. zenbakietan adierazten diren kenkariak 100eko 30 handituko dira enpresa txikien izaera duten subjektu pasiboentzat, 50.1.b) artikuluan ezarritakoarekin bat.

Kenkari handiago hori aplikatuko zaie, orobat, ondoko ezaugarriak betetzen dituzten pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren subjektu

pasiboei: enpresa edo lanbide jarduerak egitea, etekin garbia zuzeneko zenbatespenaren bidez kalkulatzea eta 50.1.b) artikuluan adierazten diren baldintzak betetzea, hots, aurre-aurreko zergaldian negozio-zifra garbia bederatziko milioi eurotik beherakoa izatea.”

Hamasei. Hogeita hamalagarren xedapen iragankorra gehitzea.

“Hogeita hamalagarren xedapen iragankorra. Berrinbertsioa egiteko salbuespen kasuetan, inbertsioa gauzatzeko edo Inbertsioetarako Erreserba Berezia erabiltzeko epea luzatzea.

Inbertsioa egiteko epea, 36. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, edo Inbertsioetarako Erreserba Berezia erabiltzeko epea, 36. artikuluan ezarritako ondorioetarako, 2009. edo 2010. urteetan bukatzen bada, subjektu pasiboek aukera izanen dute berrinbertsioa edo erreserbaren erabilera 2012ko urtarrilaren 1a baino lehen egiteko.”

Hamazazpi. Hogeita hamabosgarren xedapen iragankorra gehitzea.

“Hogeita hamabosgarren xedapen iragankorra. Berrinbertsioaren xedeko ondare-elementuak subjektu pasiboaren instalazioetan egon behar izateko epea bost urtera laburtzearen ondoriozko araubide iragankorra.

Berrinbertsioaren xedeko ondare-elementuak subjektu pasiboaren instalazioetan eduki behar izateko 36.2 artikuluan finkatu den bost urteko epe berria aplikatuko zaie, 2009ko abenduaren 31n, 36.2 artikuluko horren jatorrizko testuan finkatua zegoen hamar urteko betebeharra betetzeko dutenei. 2009ko abenduaren 31rako, beren instalazioetan hamar urtez eduki behar izateko baldintza bete ez duten subjektu pasiboei, berriz, ez zaie aplikatuko epe berria.”

Hemezortzi. Hogeita hamaseigarren xedapen iragankorra gehitzea. 2009ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietarako ondorioekin.

“Hogeita hamaseigarren xedapen iragankorra. Finantza errentamenduaren kuoten urteko zenbatekoa, ondasunaren kostuaren berreskuratzeari dagokiona.

1. Indarra duten finantza errentamenduaren kontratuetan, urteko epea 2009., 2010. eta 2011. urteetan hasten bada, 17.2.c) artikuluan ezarritako betebeharra ez da eskatuko ondasunaren kostua berreskuratzeke den errentamendu kuoten zatigatik.

2. Kuota horien zatiaren urteko zenbatekoa, epe horietan, ezin da ondasunaren kostuaren 100eko 50etik gorakoa izan, ondasun higigarrien

kasuetan, ez eta ondasunaren kostuaren 100eko 10etik gorakoa ere, ondasun higiezinen edo industria establezimenduen kasuan.”

Hemezortzi bis idatz-zati berria. 37. xedapen iragankorra gehitzea.

“Hogeita hamazazpigarren xedapen iragankorra. Karga-tasa 100eko 27ra, 20ra edo 17ra jaitea, baldin eta enpleguari eusten bazaio edo enplegua sortzen bada 2010ean eta 2011n hasten diren zergaldietan.

1. 50.1.b) artikuluko lehen lerrokadan ezarritako 100eko 27ko karga-tasa, 50.1.b) artikuluko azken lerrokadan ezarritako 100eko 20ko karga-tasa eta 50.3 artikuluan ezarritako 100eko 17ko karga-tasa 2010ean eta 2011n hasten diren zergaldietan aplikatuko dira, baldin eta zergaldi horiek hasi eta hurrengo hamabi hiletan entitatearen guztizko plantillaren batez bestekoa unitatea baino txikiagoa ez bada eta, horrezaz gain, hurrenez hurren zergaldi horietako bakoitzaren hasieraren aurreko hamabi hilabetetako guztizko plantillaren batez bestekoa baino txikiagoa ez bada.

Idatz-zati honetan aipatzen diren zergaldietako batek hamabi hilabete baino gutxiago irauten badu, plantillaren batez besteko kontaketa urtebetera eramanen da.

Entitatea 2010ean edo 2011n zehar eratu den kasuetan, zergaldi horietako bakoitzaren hasieraren aurreko hamabi hilabeteetako guztizko plantillaren batez bestekoa zero dela joko da.

Aipatu karga-tasak aplikatzeko baldintzak modu independentean kontatuko dira hamabi hilabeteko aldi horietako bakoitzean eta zergaldi horietako bakoitzean.

Idatz-zati honetan ezarritako baldintzak bete ezean, egoera hurrengo idatz-zatian ezarritako moduan erregularizatuko da.

2. Entitatea 2010ean edo 2011n zehar eratu denean eta lehenengo zergaldiaren hasieraren aurreko hamabi hilabeteetako guztizko plantillaren batez bestekoa zero baino gehiago eta bat baino gutxiago denean, xedapen honetan aipatzen diren tasak entitatea eratu den aldi aplikatuko dira, baina baldintza batekin: zergaldi hori bukatu ondorengo hamabi hilabeteetan guztizko plantillaren batez bestekoa ezin izanen da bat baino txikiagoa izan. Baldintza hori betetzen ez bada, subjektu pasiboak, ez-betetzea gertatzen den zergaldiko kuotarekin batera, behar ez bezala aplikatutako karga-tasaren aldeari dagokion kuota osoa ordaindu beharko du, berandutza-interesez gainera.”

3. artikulua. Oinordetzen eta dohaintzen gaineko zerga.

2010. urtarrilaren 1etik aurrera sortzen diren zergapeko egintzen ondorioetarako, Oinordekuzten eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko xedapenen Testu Bateginaren 12. artikuluari d) letra erantsi zaio. Testu bategin hori abenduaren 16ko 250/2002 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen. Hona hemen letra horren testua:

Testu Bateginaren 12. artikuluari d) letra erantsia.

“d) Araudi honen 11.c) artikuluan aipatzen diren pertsonen norbanako baten enpresa bat, lanbide negozio bat edo entitate bateko partaidetzak dohaintza baten bitartez eskuratzea edo beste edozein negozio juridikoren bidez “inter vivos” eta dohainik eskuratzea. Salbuetsita egonen da, orobat, haien gaineko gozamen eskubideak eskuratzea.

Salbuespen hori egin ahal izateko, betebeharrak hauek bete beharko dira:

a) Partaidetzei dagokionez: Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legearen 33.1.b) artikuluan jasotako baldintzak bete beharko dira.

b) Eskualdatzaileari dagokionez:

1. 11.c) artikuluko a) letran adierazi direnak.

2. Hirurogei urte edo gehiago izatea edo baliaezintasun oso edo baliaezintasun handiko egoeran egotea.

c) Eskuratzailari dagokionez:

1. Eskurapena bost urtez jarraian eduki behar du, eragiketa dokumentatzen duen eskritura publikoaren datatik aurrera, non eta epe horren barruan hiltzen ez den.

2. 11.c) artikuluko c) letran adierazi dena.

d) letra honetan adierazitako betebeharren bat bete ezean, salbuespenaren ondorioz ordaindu gabe gelditu den zergaren zatia ordaindu beharko da, gehi dagozkion berandutza interesak.”

4. artikulua. Ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga.

2010eko urtarrilaren 1etik aurrera gauzatzen diren zergapeko egintzetan, apirilaren 26ko 129/1999 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko Testu Bateginaren ondoko manuek testu hau izanen dute:

Bat. 16.2 artikulua.

“2. Aurrekoak ez bezalako sozietateek egindako eragiketak direnean eta kapital soziala handitzen ez duten bazkideen ekarpenetan, zerga-oinarria hauxe izanen da: ekarritako diruaren balio garbia, hau da, ekarritako ondasun eta eskubideen benetako balioa ken kengarriak diren karga eta gastuak eta ekarpen hori egiteagatik sozietateak beretu dituen zorren balioa.”

Bi. 35.I.B artikuluari 25. idatz-zatia gehitzea.

“25. 1. Inbertsio Kolektiboko Erakundeei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legean arauturiko kapital aldakorreko inbertsio-sozietateak eratzeko eta haien kapitala handitzeko eragiketak eta entitate horiei egindako ekarpenak –diru bidezkoak ez direnak– ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga hau sozietate-eragiketen modalitatean ordaintzetik salbuetsita egonen dira.

2. Lehen aipatutako legeak araututako inbertsio funts finantzarioak ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga ordaintzetik salbuetsita egonen dira, aurreko idatz-zatian ezarritako kasu beretan.

3. Lehenago aipatutako legearen bidez araututako higiezin arloko inbertsio kolektiboko erakundeek, inbertsio kolektiboko erakunde ez-finantzarioak izanik, haien xede sozial bakarra edonolako hiri-ondasun higiezinak erosi eta sustatzea bada, lurra erostea barne, gero errentan emateko, aurreko bi idatz-zatietan aurreikusitako zerga araubide berbera izanen dute.

Orobat, erakunde horiek 100eko 95eko hoberia izanen dute zerga honen kuotan, baldin eta etxebizitzak alokatzeko eskuratzen badituzte eta alokatzeko etxebizitzak sustatzeko lurra eskuratzen badituzte, betiere, bi kasu horietan, ondasun higiezin mantentze-lanen gaineko betebeharrak berariazkoak betetzen direnean, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen 50.5 artikulua c) eta d) letretan ezarri bezala, non eta, salbuespen gisa, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren berariazko baimena ez duten.

4. Hipotekak titulu bihurtzeko funtsak eta finantza-aktiboak titulu bihurtzeko funtsak sozietate-eragiketen modalitateari lotutako eragiketa guztietatik salbuetsita egonen dira.”

Hiru. 35.II.8 artikulua.

“8. Hipoteken Merkatua arautzen duen martxoaren 25eko 2/1981 Legearen 19.2 artikulua, hartan aurreikusten baita legean berean araututako zedu-

la, bono eta partaidetza hipotekarioak jaulki, esku-aldatu, itzuli eta ezereztatzeko egintzak zerga ordaintzetik salbuestea.”

5. artikulua. Tributuei buruzko Foru Lege Orokorra.

2010eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorraren manu hauek ondoko testu hau izanen dute:

Bat. 66.6 artikulua.

“6. Zerga Administrazioaren iritziz, arau-haustea Ogasun Publikoaren kontrako delitu gisa hartzeko modukoa bada, erruduntasun-testigantza eskumena duen jurisdikzioari bidaliko dio edo espediente Fiskaltzari, eta administrazio prozedurari jarraipena emateari uko egingen dio. Administrazio prozedura etenik geldituko da, agintaritza judizialak epai irmoa eman arte, auzia largetsi arte, jarduketak artxibatu arte edo Fiskaltzak espediente itzuli arte.

Agintari judizialek kondena-epaia emanez gero, ezin izanen da administrazio zehapena jarri.

Deliturik dagoenik ondorioztatzen ez bada, Zerga Administrazioak bere jarduketak hasi edo jarraituko ditu, epaitegiek frogatutaz jotzen dituzten egitateak aintzat hartuz, eta preskripzioaldia berriz kontatzen hasiko da, kontaketa eten zen une beretik aurrera. Etenaldia bitartean egindako administrazio jarduketak egin izan ez balira bezala hartuko dira.”

Bi. 67.1. artikuluko a) eta b) letrak.

“a) Aitorpenik ez aurkeztea edo aitorpen faltsuak, osatugabeak edo zehazgabeak aurkeztea.

Aitorpenak, komunikazioak, informazio ereduak edo, zergaren araudiaren arabera, baliabide telematikoen bitartez aurkeztu beharreko gainerako agiriak paper-formatuan aurkeztea ere maila berean kokatuko da.

b) Zergaren ondorioetarako garrantzia duten datuak, txostenak eta aurrekariak jakinarazi beharra ez betetzea, informazio hori norberaren zerga betebeharre lotua izan edo hirugarren pertsonekin izandako harreman ekonomiko, profesional edo finantzarioetatik etorri, foru lege honen 103. eta 104. artikuluetan ezarri bezala.”

Hiru. 68.c) artikulua.

“c) Zerga onurak, salbuespenak, arinketak edo itzulketak bidegabeki gozatzea edo edukitzea.

Arau-hauste larria izanen da, orobat, kasuan kasuko zergaren araudian finkatutako itzulketak

bidegabeki eskatzea, autolikidazioetan edo eskaeretan datu aipagarriak eman gabe utziz edo datu faltsuak emanez, diru-itzulketa lortzen ez bada ere.”

Lau. 68.d) artikulua.

“d) Kontu-sail positibo edo negatiboak edo tributu kredituak bidegabeki zehaztea edo frogatzea, norberaren edo hirugarrenen etorkizuneko aitorpenen oinarrian edo kuotan konpentsatu edo kendu beharrekoak.

Arau-hauste hau egintzat hartuko da, orobat, errenta garbia, jasanarazitako kuotak, kendu beharreko kuota edo kopuruak edo zergaldi bateko zerga pizgarriak bidegabeki aitortzen direnean, betiere dirua sartu gabe utzi ez bada edo diru-itzulketaren bat bidegabeki jaso ez bada, konpentsatu, kendu edo aplikatu gabeko diru-kopuruak egiaztapen edo ikerketa prozesu batean konpentsatu direlako.”

Bost. 76.1 artikulua.

“1. Zerga arloko arau-hauste larriengatik 69.1 artikuluan aipatzen diren kopuruaren 100eko 50 eta 100eko 150 bitarteko diruzko isun proportzionala jarriko da, idatz-zati honen bigarren lerroaldean eta hurrengo artikuluan xedatutako kasuan, deusetan galarazi gabe 71. artikuluko 3. idatz-zatian finkatutako murriztapena egitea.

68.c) artikuluko bigarren lerroaldean aurreikusitako zerga arloko arau-hauste larria eginez gero, bidegabeki eskatutako diru-kopuruaren 100eko 15eko diruzko isun proportzionala jarriko da, deusetan galarazi gabe 71. artikuluko 3. idatz-zatian finkatutako murriztapena egitea.”

Sei. 77.1 artikulua.

“1. 68.d) artikulua lehenengo lerroaldean aurreikusitako arau-haustea eginez gero, zehapenaren oinarria bidegabeki zehaztutako edo frogatutako diru-kopurua izanen da. 68.d) artikulua bigarren lerroaldean aurreikusitako kasuan, bidegabeki zehaztu edo frogatutako kopurua izanen da errenta garbiaren edo jasanarazitako kuoten gehitzea, edo kendu beharreko kopuruaren edo kuoten gutxitzea edo zerga pizgarrien gutxitzea, kasuan kasuko zergaldiari dagozkionak.

Zehapena 100eko 10eko diruzko isun proportzionala izanen da, zerga oinarrian konpentsatu edo kendu beharreko kontu-sailak badira, edo 100eko 15ekoa, kuotan edo ageriko zerga kredituetan kendu beharreko kontu-sailak baldin badira, deusetan galarazi gabe 71. artikuluko 3. idatz-zatian finkatutako murriztapena egitea.

Idatz-zati honetan ezarritakoaren arabera jartzen diren zehapenak kengarriak izanen dira subjektu pasibo arau-hausle berak, aipatutako kontzeptuen konpentsazioaren edo kenkariaren ondorioz, geroago egiten dituen arau-hausteengatik jartzen zaizkion zehapenen zati proportzionalean, baina kenkari gisa sartu beharreko zenbatekoa ezin da izan arau-hauste horiei dagokien isuna baino handiagoa.”

Zazpi. 97. artikulua.

“97. artikulua. Salaketa publikoa.

1. Salaketa publikoaren bidez, tributu arloan arau-hausteak izan daitezkeen egintzak edo egoerak jakinaraziko zaizkio Zerga Administrazioari, edo tributuak aplikatzeko garrantzia izan dezaketena. Salaketa publikoak ez du galarazten Zerga Administrazioari laguntza eman beharra, 103. eta 104. artikuluetan arautu bezala.

2. Salaketa bat jasota, eskuduna den organoari igorriko zaio, bidezkoak izan daitezkeen jarduketei ekiteko. Organo horrek salaketa artxibatzea erabaki dezake, oinarririk gabekotzat hartzen denean edo salatutako egintzak nahiz pertsonak ez direnean behar adina zehazten edo identifikatzen.

Bidezkoak diren jarduketei hasiera ematen ahal zaie baldin eta aski zantzu badago egotzitako egintzen egiazkotasunari buruz eta horiek ezezagunak badira Zerga Administrazioarentzat. Kasu horretan, salaketa ez da espediente administratiboan sartuko.

3. Salaketa jartzailea ez da interesduntzat hartuko salaketaren ondorioz hasitako jarduketa administratiboetan, eta ez zaio jarduketen emaitzen berri emanen. Jarduketa horien emaitzei buruzko errekursoak nahiz erreklamazioak jartzeko zilegitasunik ere ez du izanen.”

Zortzi. 103.1 artikulua, lehen lerroaldea.

“1. Pertsona fisikoek nahiz juridikoek, publikoek nahiz pribatuek eta foru lege honen 25. artikuluan aipatutako entitateek nahitaezkoa dute tributuen arloan garrantzia duten era guztietako datuak, txostenak edo aurrekariak ematea Zerga Administrazioari, bai beren zerga betebeharren gainekoak, baita beste pertsona batzuekin dituzten harreman ekonomiko, profesional nahiz finantzarioetatik datozenak ere.”

Bederatzi. 118.4 artikulua, bigarren lerroaldea.

“Kautelazko neurriak behin betikoak bihurtzen ahal dira premiamendu-prozeduraren esparruan. Bestela, neurriak hartu eta handik sei hilabeteko epean ofizioz kenduko dira, salbu epe horren barnean luzatzea erabakitzen bada, arrazoituta. Kasu

horretan, luzapena sei hilabetekoa izanen da gehienez.”

Hamar. 131. artikulua.

“131. artikulua. Tributuak ikuskatzeko ahalmenak.

1. Ondokoak aztertuz gauzatuko dira ikuskatze jarduketak: dokumentuak, liburuak, kontabilitate nagusia eta lagungarria, fitxategiak, fakturak, frogagiriak, tributu arloan garrantzia duen gutuneria, datu-base informatizatuak, programak eta jarduera ekonomikoari buruzko erregistro eta fitxategi informatikoak. Halaber, ikuskatuko dira Administrazioari jakinarazi beharreko edo zerga betebeharrarako behar diren ondasunak, elementuak, ustiapenak eta beste edozein aurrekari edo informazio.

2. Ikuskapen jardueretan beharrezkoa baldin bada, tributu arloko ikuskapen lanak egiten dituzten funtzionarioek ahalmena izanen dute, erregelamenduz zehaztutako baldintzetan, finketan, negozioetako lokaletan eta bestelako establezimenduetan edo tokietan sartzeko, betiere bertan karga duten jarduerak edo ustiapenak egiten badira, zergak dituzten ondasunak badaude, zergapeko egintzak edo zerga betebeharren kasuak gertatzen badira edo horien frogaren bat baldin bada.

Aurreko lerroaldean aipatutako tokien zaintza duen pertsonak ez badu onartzen ikuskapeneko funtzionarioak sartzea, beharrezkoa izanen da erregelamenduz zehaztutako agintaritza administratiboaren baimen idatzia.

Ikuskapen jarduketetan beharrezkoa baldin bada tributudunaren egoitzan sartzea, hots, Konstituzioak babestutako egoitzan, Zerga Administrazioak nahitaezkoa izanen du horren adostasuna edo bidezkoa den epailearen baimena.

3. Tributudunek harrera egin beharko diote ikuskapenari, eta ikuskapen lanetan egokia den laguntza emanen diote.

Ikuskapenak errekeritutako tributudunak nahitaezkoa izanen du jarduketak egiteko adierazitako tokian, egunean eta orduan agertzea, berez edo ordezkari baten bidez, eta dokumentazioa eta eskatutako gainerako elementuak eman beharko ditu edo ikuskapenaren eskura izan.

Salbuespenez, eta arrazoituta, ikuskapenak eskatzen ahalko du tributuduna bera agertzea, egin beharreko jarduketek halakorik eskatzen badute.”

Hamaika. 135.4. artikulua.

“4. Ikuskapen aktetan tributudunek onartutako gertakariak egiazkotzat joko dira, eta horiek

zuzentzeko beharrezkoa izanen da egitatezko akatsa egin izanaren frogara.”

Hamabi. 138. artikulua.

“138. artikulua. Ikuskapen prozeduraren hasiera eta jarduketak zabaltea.

1. Ikuskapen prozedura honela hasiko da:

a) Ofizioz.

b) Tributudunak eskatuta, artikulua honen 3. idatz-zatian ezarri bezala.

2. Prozedurari hasiera eman baino lehen, egiaztatzeko eta baieستeko jarduketak egiten ahalko dira, egokiago ezagutzeko kasu zehatzaren ingurubarrak eta erabakitzeke ea komeni ote den prozedurari hasiera ematea.

Kasu horretan, egiten diren jarduketak ez dira errekerimendu administratibotzat joko 52. artikulua 3. idatz-zatian aurreikusitako ondorioetarako.

3. Ikuskapeneko jarduketa partzialen xede den tributudun orok aukera izanen du Zerga Administrazioari eskatzeko jarduerak izaera orokorra izan dezatela tributuari dagokionez, eta, egokia bada, ukitutako aldiei dagokienez. Horrek ez ditu etenen egiten ari diren jarduketak.

Tributudunak 15 eguneko epean egin beharko du eskaera, ikuskapeneko jarduketa partzialen hasiera jakinarazten denetik.

Eskaera egin eta sei hilabeteko epea izanen du Zerga Administrazioak jarduketaren irismena handitzeko edo ikuskapen orokorrari hasiera emateko. Epe hori ez betetzeak berarekin ekarriko du ikuskapen partzialeko jarduketek ez dutela preskripzio epea etenen tributu eta zergaldi berbera orokorki egiaztatzeko eta ikertzeko.

4. Zergadun guztiek eskatzen ahalko dute aurkeztu dituzten zerga aitorten egiazta daitezela. Eskaera aurkeztu eta sei hilabeteko epean Administrazioak ez badio hasiera ematen inolako jarduketari, eta hamabi hilabeteko epean ez badu jarduketarik bukatzen, ulertuko da eskaerak adierazitako zerga eta aldiengatik aurkeztutako aitorten zuzenak direla, eta ezin izanen dira ondoren zuzendu.”

Hamahiru. 139. artikulua.

“139. artikulua. Ikuskapeneko jarduketaren epea.

1. Ikuskapeneko prozeduraren jarduketak 12 hilabetean bukatu beharko dira, tributudunari prozeduraren hasiera jakinarazi eta egun horretatik aurrera zenbatuta. Jarduketak bukatutzat hartuko dira bukaera jakinarazten den egunean edo jarduketaren ondorio den administrazio-egintza jakinara-

zitat ulertzen denean. Jakinarazteko betebeharrak bete dela ulertzeko eta ebazpenerako epea zenbatzeko, aski izanen da frogatzea ebazpeneko testu osoa jakinarazteko saiakera bat egin dela. Ebazpena emateko epearen barnean ez dira kontatuko ez erregelamenduz ezartzen diren etenaldi justifikatuak, ez eta Zerga Administrazioari egozteko modukoak ez diren arrazoiengatik prozeduran gertatzen diren atzerapenak ere.

Nolanahi ere, ondoko inguruabarretako bat gertatzen bada, epe hori zabalitzen ahalko da, erregelamenduz zehazten diren irismen eta baldintzekin (epe berriak 12 hilabete iraunen du gehieenez ere):

a) Bereziki konplexuak izatea. Inguruabar hori gertatzen dela ulertuko da honako hauek kontuan hartuz: pertsonaren edo entitatearen eragiketen tamaina, jardueren barreiatze geografikoa eta zergak bateratze-araubidearen bitartez edo nazioarteko zerga gardentasunaren araubidearen bitartez ordaintzen dituen. Orobat, erregelamenduz ezarritako beste kasuak.

b) Jarduketetan ikustea tributudunak enpresa jardueraren bat edo jarduera profesionalen bat ezkutatu diola Administrazioari.

Nolanahi ere, lege aurreikusitako epeak luzatzeko erabakia hartzeko, nahitaezkoa izanen da arrazoitzea, egintzak eta zuzenbideko oinarriak aipatuz.

2. Baldin eta ikuskapen prozedura justifikaziorik gabe eteten bada, jarduketarik ez delako egin sei hilabetean baino gehiagoan, betiere tributudunari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik, edo baldin eta ez bada betetzen artikulua honen 1. idatz-zatian adierazten den prozeduraren epea, horrek ez du berarekin ekarriko prozedura iraungitzea. Prozedurak aurrera jarraituko du bukatu arte, baina ondorio hauek sortuko ditu likidatzeko dauden zerga betebeharrak:

a) Preskripzioa ez da etentzat joko, justifikatu gabeko etetea arte gauzatutako ikuskapen jarduketaren ondorioz edo artikulua honetako 1. idatz-zatian adierazitako epean izandakoen ondorioz.

Kasu horietan, ulertuko da preskripzioa eten dela baldin eta jarduketei ekiten bazaie berriz ere, interesdunak horren berri formalki izanik, justifikatu gabeko etetearen ondoren, edo baldin eta jarduketak egiten badira artikulua honen 1. idatz-zatian aipatutako epea bukatu ondoren. Bi kasuetan, tributudunak eskubidea izanen du jakiteko ea egiten diren jarduketek zer kontzeptu eta aldi hartuko dituzten.

b) Prozedura hasten denetik jarduketei berriz ere ekin bitartean egin diren diru-sarrerak, tributudunak ikuskapen jarduketan xede den tributuari eta aldiari egozten dizkionak, borondatezkoak izanen dira 52.3 artikulua onorioetarako.

Halaber, borondatezko hartuko dira epe honetan egiten diren diru-sarrerak: prozedura hasten denetik artikulua honen 1. idatz-zatian aurreikusitako prozeduraren epearen baldintza ez betetzearen ondoren egindako lehen jarduketa arte, betiere ikuskapen jarduketan xede den tributuari eta aldiari egozten badizkio tributudunak.

3. Erruduntasun-testigantza jurisdikzio eskudunari pasatzen zaionean edo espediente fiskaltzari igortzen zaionean, 66. artikulua 6. idatz-zatian aurreikusitakoarekin bat, igorpen horrek ondoko ondorioak izanen ditu ikuskapen jarduketan epean iraupenari dagokionez:

a) Arrazoi justifikatuz hartuko da jarduketa horien epearen zenbaketa eteteko.

b) Epea luzatzea ahalbidetzen duen arrazoitaz hartuko da, artikulua honen 1. idatz-zatian xedatutakoarekin bat, baldin eta administrazio prozedurak aurrera egin behar badu 66. artikulua 6. idatz-zatiak adierazitako arrazoietako bat gertatzeagatik, hots, deliturik ez dela aurkitu dioen epea irmoa, jarduketan largespena edo artxibatzea edo Fiskaltzak espediente itzultzea.

4. Ebazpen judizial edo ekonomiko-administratibo batek edo Hitzarmen Ekonomikoan aurreikusitako Arbitraje Batzordearen erabaki batek ikuskapen jarduketan atzeraeragina agintzen duenean, horiek epe honetan bukatuko dira: jarduketak atzera eramaten direnetik artikulua honen 1. idatz-zatian adierazitako epea bukatzen den arte, edo sei hilabetean, baldin eta beste epea laburragoa bada.

Ebazpena edo erabakia betearazteko eskumena duen organoak espediente jasotakoan hasiko da zenbatzen epe hori.

Beste kasu batzuetan ere aplikatuko da aurreko leerroaldean xedatutakoa administrazio prozeduratan, hain zuzen ere, epea luzatu ondoren, erruduntasun-testigantza jurisdikzio eskudunera pasatu denean edo espediente Fiskaltzara bidali denean eta aurrera jarraitu behar dutenean, 66. artikulua 6. idatz-zatian adierazitako arrazoietako bat gertatzeagatik. Kasu horretan, ebazpen judiziala jasotzen denetik hasita zenbatuko da epea, edo Fiskaltzak edo prozedurari jarraipena eman behar dion organo eskudunak itzulitako espediente jasotzen denetik hasita.”

Hamalau. Hirugarren xedapen iragankorraren idazketa berria.

“Hirugarren xedapen iragankorra. 2010ean egiten diren tributu zorra geroratzeko edo zatikatzeko eskaerei aplikatzen zaizkien neurri berariazkoak.

2010ean egiten diren tributu zorra geroratzeko edo zatikatzeko eskaerei, betiere dirua biltzeko kudeaketa lana Ekonomia eta Ogasun Departamentuari badagokio, honako xedapen berariazko hauek aplikatuko zaizkie:

1. Baldin eta Nafarroako Komunitateko Diru-bilketaren Erregelamenduaren (uztailaren 2ko 177/2001 Foru Dekretu bidez onetsia) 51.1.b) artikuluan ezarritako zenbatekoa baino txikiagoa bada geroratu beharreko zorraren zenbateko osoa, ez da bermerik eskatuko, betiere geroratzea ez bada hiru urtetik gorakoa, geroratu nahi den zorraren 100eko 20 ordaintzen badu eskatzaileak tramitatu aurretik eta geroratzeak hilabeteko maiztasuna badu.

2. Borondatezko epean egindako geroratze edo zatikatzeko eskaeretan, betiere geroratu edo zatikatu beharreko zenbatekoa 12.000 eurotik beherakoa bada, bi urte arteko geroratzea eta hilabeteko maiztasuna izanik, ez da bermerik eskatuko, ezta geroratze eskatutako zorraren 100eko 20 ordaintzea ere.

3. Borondatezko epeko zorren kasuan, geroratze edo zatikatzeko eskaera automatikoki ezetsiko da baldin eta hiru zerga zor edo gehiago erabat kitatu gabe badaude edo Nafarroako Ogasun Publikoaren beste eskubide ekonomiko batzuen hiru ordainketa edo gehiago, salbu geroratzeko eskatutako zergak bermatzen badira edo aurrekoak bermaturik badaude, soil-soilik Nafarroako Komunitateko Diru-bilketaren Erregelamenduaren (uztailaren 2ko 177/2001 Foru Dekretuaren bidez onetsia) 50.1 eta 50.2.a) artikuluetan adierazitako berme motekin.

Aurrekoa hala izanik ere, 2010ean aurkeztu eta ordaindu beharreko aitortpenetako zerga zorrak geroratzeko edo zatikatzeko eskaeren kasuan, betiere erregelamenduz ezarritako aurkezteko eta ordaintzeko epean egiten badira eskaera horiek, ez da kontuan izanen 2010eko urtarrilaren 1a arte kitatzeko dauden geroratzeen kopurua.”

6. artikulua. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren Erakunde Autonomoen Tasa eta Prezio Publikoari buruzko Foru Legea.

2010eko urtarrilaren 1etik aurrera, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren Erakunde Autonomoen Tasa eta Prezio Publikoari

buruzko martxoaren 27ko 7/2001 Foru Legearen hurrengo artikuluek honako testu hau izanen dute:

Bat. V. tituluko II. kapituluaren izen berria.

“II. KAPITULUA

Nafarroako Aldizkari Ofizialean iragarkiak argitaratzeagatik ordaindu beharreko tasa”

Bi. 32. artikulua.

“32. artikulua. Zergapeko egintza.

Nafarroako Aldizkari Ofizialean iragarkiak argitaratzea da zergapeko egintza.”

Hiru. 33. artikulua.

“33. artikulua. Subjektu pasiboak.

Tasaren subjektu pasiboak izanen dira iragarkiak argitaratzea eskatzen duten pertsona fisikoak

edo juridikoak edo, halakorik eskatu ez dutenean, argitaratzearekin onura berezia hartzen dutenak.”

Lau. 34. artikulua.

“34. artikulua. Sorrazpena.

Argitaratzeko eskaera aurkezten denean sorraziko da iragarkiak argitaratzeagatik ordaindu beharreko tasa. Argitaratzea gauzatu eta dagokion zenbatekoa zehaztu ondoren eginen da ordainketa. Dena dela, aurrez zehaztutako tarifa duten iragarkien kasuan, eskaera aurkeztearekin batera ordaintzeko eskatzen ahalko da.”

Bost. 35. artikulua.

“35. artikulua. Tarifak.

Tarifa hauen araberako tasa eskatuko da:

TARIFA		EUROTAN
	Iragarkiak jartzea	
	1. Tarifa orokorra	
	1.1. Hitz bakoitzeko	0,23
	1.2. Orrialde bakoitzeko	277,00
		edo, taulak edo irudiak txertatzen direnean, zati proportzionala, gutxienez erdia edo laurdena
	2. Tarifa aurrez ezarria duten iragarkiak	
	2.1. Jarduera sailkatuetarako udal lizentzia (ordainketa bakarra, lizentzia ematean)	46,00
	2.2. Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legea betetzeko argitaratzen diren iragarkiak	40,25
	2.3. Ur konfederazioek igortzen dituzten iragarkiak	34,50
	2.4. Batzar Orokorrerako deialdia edo antzekoa	34,50
	2.5. Titulu edo agiriak galtzea	17,25
	Goiko 2. tarifan adierazitako iragarkiak 1. tarifa orokorraren arabera fakturatuko dira, azken hori aurrez ezarritako tarifaren bikoitza baino gehiago bada.	
	3. Iragarkia presaz argitaratuz gero tarifa bikoitza ordainduko da.	

Sei. 51. artikulua, 2. eta 3. tarifak.

"2. TARIFA	Zirkulazioari buruzko Erregelamendu Orokorren 13. artikuluan arautzen diren zirkulazio baimen osagarriak ematea.	
	1. Zirkulazio baimen osagarria, hilabeterako, ibilgailu motordun bakar baterako eta ibilbide bakarrerako.	15,00
	2. Zirkulazio baimen osagarria, hiru hilabeterako, ibilgailu motordun bakar baterako eta ibilbide bakarrerako.	30,00
	3. Zirkulazio baimen osagarria, sei hilabeterako, ibilgailu motordun bakar baterako eta ibilbide bakarrerako.	55,00
	4. Zirkulazio baimen osagarria, urtebeterako, ibilgailu motordun bakar baterako eta ibilbide bakarrerako.	100,00
	5. Zirkulazio baimen osagarri generikoa, orokorra eta berariazkoa, ibilgailu autopultsatuetarako (garabiak, etab.), ibilgailu motordun bakarrerako, bi urtez ibiltzeko Nafarroako errepideen katalogoko errepide guztietan.	180,00
	6. Zirkulazio baimen osagarria, sei hilabeterako eta nekazaritzako ibilgailu motordun bakar baterako.	24,00
	7. Kudeaketa eta bitartekotza lanak nekazaritzako kooperatibekin, kideen jabetzapeko ibilgailu motordunetarako zirkulazio baimen osagarriak lortzeko.	372,00
	8. Zirkulazio baimen osagarria urtebeterako eta nekazaritzako ibilgailu motordun bakar baterako, nekazaritzako kooperatibetako titularrentzat, alde zuzenetik kooperatibak kudeatu duena.	10,00
	9. Emandako zirkulazio baimen osagarriaren titularra edo matrikula aldatzea.	10,00
3. TARIFA	Bideen erabilera sozioekonomikorako eskaerak	41,00"

Zazpi. 103.2 artikulua, G) letra.

“G)	Osasun produktuak:	
	Optikak eta farmazia bulegoetako optika atalak baimentzea:	225
	Audio-protiesien zentroak baimentzea:	225
	Ortopediak baimentzea:	225
	Hortz protiesien laborategia baimentzea	225
	Osasun produktuen banatzaileak baimentzea:	225
	Osasun produktuen publizitatea baimentzea:	125
	Neurrira egindako osasun produktuen fabrikatzaileei funtzionamendurako baimena ematea:	
	– Ematea:	600
	– Baliozkotzea:	400
	– Aldatzea:	225
	Ikuskapen arautua edo alderdi batek eskatua:	75
	Optikak, farmazia bulegoetako optika atalak, ortopediak, audio-protiesien zentroak, hortz protiesien laborategiak eta osasun produktuen banaketarako biltegiak baliozkotu eta/edo aldatzea:	65”

Zortzi. 119. artikulua.

"119. artikulua. Tarifak.

Tarifa hauen arabera tasa eskatuko da:

		Eurotan
1. TARIFA	Salgaien garraioa:	
	1.1. Salgaien garraio publiko edo pribatu osagarriko baimenak ematea, birgaitzea, ikus-onestea edo aldatzea:	26,00 ibilgailu bakoitzeko
	1.2. Ibilgailu baten matrikulatzearen edo titulartasuna aldatzearen aurreko ziurtagiria ematea, garraiorako baimena eman gabe	8,00 ziurtagiriko
2. TARIFA	Bidaiarien garraioa:	
	2.1. Bidaiarien garraio publiko berezi edo pribatu osagarriko baimenak ematea, birgaitzea, ikus-onestea edo aldatzea:	26,00 enpresarentzako baimen bakoitzeko
	2.2. Ibilgailu bakoitzaren baimenaren kopia ziurtatuak luzatzea:	11,00 kopia ziurtatu bakoitzeko
	2.3. Erabilera bereziko bidaiarien garraio publikorako baimenak ematea edo berritzea:	26,00 baimen bakoitzeko
3. TARIFA	Ibilgailu gidaridun nahiz gabeak errentatzeko baimenak ematea, birgaitzea, luzatzea, ikus-onestea edo aldatzea:	
	3.1. Ibilgailu gidaridunen errentamendua:	26,00 ibilgailu bakoitzeko
	3.2. Ibilgailu gidarigabeen errentamendua:	84,00 subjektu pasibo bakoitzeko
4. TARIFA	Garraioaren jardura osagarriak ezartzeko baimenak ematea, berritzea edo aldatzea (garraioko operadorea):	52,00 subjektu pasibo bakoitzeko
5. TARIFA	Bestelako tasak:	
	5.1. Liburu edo dokumentu nahitaezkoak legeztatu, eginbideak egin edo zigilatzeagatik:	10,00
	5.2. Baimenen kopia bikoiztuak luzatzeagatik:	17,00
	5.3. Gidari ziurtagiria luzatzeagatik:	27,00
	5.4. Takografo digitalaren txartela luzatzeagatik:	41,00
6. TARIFA	Azterketa egiteko eta tituluak emateko tasak:	
	6.1. Ondoko azterketa hauek egiteko eskubideengatik: garraiolariaren lanbide gaitasunaren titulua lortzekoa, segurtasun aholkulariaren titulua lortzekoa edo berritzekoa, edo gidariaren lanbide gaitasunaren ziurtagiria lortzekoa:	11,00
	6.2. Garraiolariaren lanbide gaitasunaren titulua emateagatik eta segurtasun aholkulariaren titulua emateagatik edo berritzeagatik:	26,00
7. TARIFA	Gidarien hasierako kualifikazioaren eta etengabeko prestakuntzaren tasak	
	7.1. Zentroak baimentzea:	325,00
	7.2. Zentroak ikus-onestea:	170,00
	7.3. Ikastaroak homologatzea:	120,00
	7.4. Gidariaren gaitasun txartela ematea eta berritzea:	25,00
8. TARIFA	Idatzizko txostenak prestatzeagatik	
	8.1. Garraiolariaren eta Garraioko Jardura Lagungarri eta Osagarrien Erregistro Orokorrean edo Garraio Zuzendaritza Nagusiko zerbitzuen beste erregistro batzuetan ageri diren pertsonen, baimenen, ibilgailuen edo enpresa berariazkoen buruzko datuen gainean:	25,00
	8.2. Aurreko kontzeptuaren jarduketatarako, datu orokorren gainean	200,00"

Bederatzi. 127. artikulua.

"127. artikulua. Tarifak.

Tarifa hauen arabera tasa eskatuko da:

		EUROTAN
1. TARIFA	Eraikinak egitea, berregitea edo handitzea. Gasolina-zerbitzuguneak ezartzea eta gasolina eta lubrifikatzaileak banatzeko aparatuak instalatzea:	
	1. 3.000 euro bitarteko aurrekontua dutenak:	33,00
	2. 3.000tik 6.000 eurora bitarteko aurrekontua dutenak:	64,50
	3. 6.000tik 12.000 eurora bitarteko aurrekontua dutenak:	84,50
	4. 12.000tik 30.000 eurora bitarteko aurrekontua dutenak:	131,50
	5. 30.000 eurotik gorako aurrekontua dutenak:	176,40
2. TARIFA	Eraikuntzen kontserbaziorako obrak egitea:	
	1. 3.000 euro bitarteko aurrekontua dutenak:	27,30
	2. 3.000tik 6.000 eurora bitarteko aurrekontua dutenak:	35,00
	3. 6.000 eurotik gorako aurrekontua dutenak:	46,00
3. TARIFA	Itxitura edo eustorma eraikitzea:	
	1. Itxitura ez gardena (fabrika-obra edo heskaia), metro linealeko:	3,15 (T.m.23)
	2. Itxitura gardena (hesola eta burdin haria edo sarea), metro linealeko:	1,45 (T.m.23)
	3. Eustorma, metro linealeko:	3,80 (T.m.23)
4. TARIFA	Uraren, elektrizitatearen, gasaren, telefonoaren eta abarren lurpeko hodiak paratzea:	
	1. Hodia babes eremuetan paratzea:	1,45 (T.m.25)
	2. Galtzada gurutzatzeko eroanbidea, metro 1,00 bitarteko diametrokoa, metro linealeko:	3,90 (T.m.25)
	3. Galtzada gurutzatzeko eroanbidea, fabrika-obra edo zubi bidez, behin-behineko desbidea barne:	131,50
5. TARIFA	Aireko lineak instalatzea:	
	1. Goi tentsioko lineako zutoin edo dorre metalezko bakoitzeko, babes eremuetan:	9,15 (T.m.45)
	2. Behe tentsioko linearako edo bestelako lineetako zutoin bakoitza, babes eremuetan:	4,20 (T.m.30)
	3. Goi tentsioko lineak errepidea gurutzatzea: lur-berdinketaren gaineko metro lineal bakoitzeko:	3,65 (T.m.45)
	4. Behe tentsioko lineak edo bestelako linearen batek errepidea gurutzatzea: lur-berdinketaren gaineko metro lineal bakoitzeko:	2,60 (T.m.30)
	5. Babes eremuan dagoen transformazio zentro bakoitzeko:	48,30
6. TARIFA	Sarbideak, gurutzaguneak eta lotuneak:	
	1. Finketarako sarbideak, zoladurak, aparkalekuak edo espaloiak egin, konpondu eta atontzea:	33,00
	2. Maila bereko gurutzaguneak eta maila desberdinetako lotuneak eraikitzea:	171,00
7. TARIFA	Harrobietako eta baso lanetako materialak gordetzea	
	1. Sei hilabetetik behera:	30,00
	2. Gehienez urtebetean	50,00
8. TARIFA	Bestelako obra eta aprobetxamenduak:	
	1. Arbolak bota edo landatzea:	33,00
	2. Baskulak instalatzea	33,00
	3. Babes eremuan hobi septikoa ezartzea:	36,00
	4. Lurpeko ur edo gas biltontzia eta kutxetak egitea.	34,00
	5. Informazio seinaleak eta kartelak jartzea, unitateko:	30,00
	6. Eraikinak eraistea:	30,00
	7. Finkak zelaitu eta betelana egitea:	30,00
	8. Aurreko ataletan sartzen ez diren obra mota guztietarako:	30,00"

Hamar. 128. artikulua.

“128. Fidantzak.

Emandako baimenen ondorioz errepideetan izan daitezkeen kalteen erantzukizunari dagokionez, zilegi izanen da honako fidantza hauek jartzeko agintzea:

		Eurotan
1.	Errepidea “sator” batez gurutzatzea:	950
2.	Errepidea lurpetik gurutzatzea:	950
3.	Goi tentsioko lineak airez gurutzatzea:	950
4.	Behe tentsioko lineak airez gurutzatzea:	240
5.	Finketarako sarbideak:	240
6.	Egur lantegiak:	950
7.	Maila bereko gurutzaguneak eta maila desberdinetako lotuneak eraikitzea, errepideak fabrikako obrekin edo zubiekin gurutzatzea eta behin-behineko desbideak egitea:	Obra gauzatzeko aurrekontuaren %6 (910 euro gutxienez)
8.	Bestelako baimen batzuk:	295”

Hamaika. 160. artikulua, 2. idatz-zatia.

“2. Ziurtatzeak eta beste jarduketa batzuk, esaterako: mahats-biltzea eta ardogintza kontrolatzea; jatorri deituretan, deitura espezifikoen edo adierazpen geografiko babestuetan sartzen diren produktuen izakinen kopuru-erakundeak eta ekintza osagarriak; eta “Nafarroa” Jatorrizko Deituraren sartutako upeltegien ardoa egitea, aipatutako deituraren Mahastien Erregistroan inskribatutako lurzatiaren mahatsekin egina, eta/edo erregistro horretan inskribatu gabeko mahatsekin egina, betiere Nafarroako Foru Komunitateko lurrean badaude eta Nafarroako Foru Komunitateko Gobernuak baimendutako aldaerekin eginak badaude, baina “Nafarroa” Jatorrizko Deituraren sartu gabekoekin, azken xedea edozein izanik ere.”

Hamabi. 163. artikulua.

1. 1. tarifako a) letra aldatzea.

“a) Honela kalkulatu da tasaren zerga-oinarria: interesdun bakoitzaren izenean inskribatutako hektareak bider azken bost kanpainetan eskualdeko hektarea baten produkzioaren batez bestekoa.”

2. 7. tarifa gehitzea.

“7. tarifa.- “Nafarroa” Jatorrizko Deituraren inskribatutako upeltegien egindako ardoa, “Nafarroa” Jatorrizko Deituraren Mahastien Erregistroan inskribatutako lurzatiaren mahatsekin egina, eta/edo inskribatu gabekoekin egina, betiere lurzatiak Nafarroako Foru Komunitatean daudela, baldin eta Nafarroako Foru Komunitateko Gobernuak baimendutako aldaerekin eginak badaude, baina “Nafarroa” Jatorrizko Deituraren sartu gabekoekin direla.

a) Honela kalkulatu da tasaren zerga-oinarria: babestu gabeko produktuaren unitatearen batez besteko prezioa bider saldutako tamaina edo kantitatea.

b) Aplikatu den gehieneko karga-tasa 100eko 1,5 da.

c) Jatorriaren babespean merkaturatzen bada ardoa, 4. tarifaren arabera kalkulatu da tasa hori.”

Hamahiru. XI. tituluari VIII. kapituluaren gehitzea, 164 bis artikulua bat duena.**“VIII. KAPITULUA**

Esportaziorako ziurtagiri fitosanitarioak emateagatik ordaindu beharreko tasa.

164. bis artikulua.

1.- Zergapeko egintza.

Esportaziorako ziurtagiri fitosanitarioak ematea da tasaren zergapeko egintza.

2.- Subjektu pasiboak.

Hauek izanen dira tasaren subjektu pasiboak: esportaziorako ziurtagiri fitosanitarioa eskatzen duten pertsona fisiko edo juridiko pribatuak.

3.- Sorrarazpena.

Zergapeko egintza den zerbitzuaren eskaera aurkezten den unean berean sortuko da tasa.

4.- Tarifa.

Tarifa hauen arabera izanen da tasa:

		EUROTAN
1. TARIFA	Ziurtagiriko	42,90
2. TARIFA	Bisita behar duen ziurtagiriko	295,70
3. TARIFA	Bisita eta analisisa behar dituen ziurtagiriko	355,70"

7. artikulua. Nafarroako Nekazaritzako Ustiategien Erregistroari buruzko Foru Legea.

2010eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, Nafarroako Nekazaritzako Ustiategien Erregistroari buruzko Foru Legearen Testu Bategina onetsi zuen uztailaren 2ko 150/2002 Legegintzako Foru Dekretuaren 19.2 artikulua testu hau izanen du:

Bat. 19.2 artikulua.

“2. Onura aplikatzeko, beharrezkoa izanen da eskritura publikoaren bidez eskualdatzea, eta 17. artikulua 2. idatz-zatian ezarritakoa aplikatuko da.

Salbuespenez, eskualdatzea lurzati berrantolamenduko prozesu bat garatzen ari denean gertatzen bada, eragiketa dokumentu pribatu baten bidez formalizatuta ere aplikatuko da salbuespena.

Kasu horretan, 17.2 artikuluan aipatutako baldintza jasoko da Jabetza Berrantolatze Aktan, eta eskualdatzearen xede den finka Jabetza Erregistroan inskribatzen denetik aurrera hasiko da zenbatzen aurreikusitako bost urteko epea.”

8. artikulua. Apirilaren 28ko 6/1997 Foru Legea.

2009ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, apirilaren 28ko 6/1997 Foru Legearen xedapen gehigarriak idazketa hau izanen du:

“Xedapen gehigarria. “NASUINSA” Nafarroako Industria Lurzorua, S.A. Sozietate Publikoaren onura fiskalak.

“NASUINSA” Nafarroako Industria Lurzorua, S.A. sozietate publikoak onura fiskal hauek izanen ditu:

a) Ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergan:

– Kapitala eratzeko eta handitzeko eragiketek izaten duten zergaren kuota 100eko 99 murriztea.

– Bere helburu sozialaren barnean, jesapenak jaulkitzeko eta maileguak jasotzeko egiten dituen eragiketen gaineko eta bere alde emandako berme mota guztien zergaren gaineko kuotak 100eko 99 murriztea.

– Ondoko eragiketek dituzten zergen kuotak 100eko 95 murriztea: eskurapenak, obra berriaren

aitorpena eta ondasun higiezin zatiketa horizontala, industrialdeak eta bizitegi eremuak eta beste erabilera batzuetarako eremuak sustatzeko, barne direla ekipamenduetarako eta merkataritzarako erabilerak, bai eta, ondoren merkaturatzeko, alde aurretik egiten diren banantzeak, eransketak, zatiketak edo elkartzeak ere.

b) Sozietateen gaineko zergan: hark sustatutako industrialdeetako, bizitegi eremuetako eta beste erabilera batzuk dituzten eremuetako (ekipamenduetako eta merkataritzako erabilerak barne) ondasun higiezinak eta instalazioak besterentzen eta errentatzen diren kasuetan, hortik eratorritako errentei dagokien kuota osoaren 100eko 99ko hoberia izanen da, betiere lortutako zenbatekoa sustapen publikoko industria- edo bizitegi-lurzoruan berrinbertitzen bada bost urteko epean, besterentzearen egunetik zenbatuta edo errentatzearen ondoriozko errentak lortzen diren egunetik.”

9. artikulua. Fundazioen eta babes jardueren tributu araubidea.

2009ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietarako ondorioekin, Fundazioen eta Babes Jardueren Tributu Araubidea erregulatzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legearen artikulua batzuek, ondotik heldu direnek, honako testu hau izanen dute:

Bat. 22. artikulua. Likidazio oinarri negatiboaren konpentsazioa.

“22. artikulua. Likidazio oinarri negatiboaren konpentsazioa.

Likidazio oinarri negatiboak konpentsatzen ahalko dira, ondoz-ondoko hurrengo hamabost urteetan bukatzen diren zergaldietako likidazio oinarri positiboekin. Aurretik bidezkoa den likidazioa edo autolikidazioa beharko dute likidazio oinarri negatibo horiek.”

Bi. 25.1 artikulua.

“1. Kuota likidotzat hartuko da kuota osoari sozietateen gaineko zergan ezarritako kenkari eta hobarien zenbatekoa kentzearen emaitza.”

10. artikulua. Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeko 143.2 artikulua honela idatzita geldituko da:

“2. 1. idatz-zatian agertzen diren datuetan oinarritua, udalek, martxoaren 31 baino lehen, behar diren likidazioak egin eta zergaren likidaziorako agiriak igorriko dituzte urtero, zerga tasa aplikatu zaion ondasunaren katastroko balioa espresuki adieraziz. 138. artikuluan ezarritakoaren arabera zerga oinarrian beherapena aplikatu behar baldin bada, inguruabar hori aipatuko da, bai eta beherapen horiek noiz arte aplikatuko diren ere. Orobat adieraziko dira likidazioetako gainerako funtsezko elementuak eta tributu zorra ordaintzeko tokia, epea eta modua, bai eta aurkatzeko bideak ere.

Foru lege honen 1. tituluko IV. kapituluko 4. eta 5. ataletan ezarritakoaren ondorioetarako, eta kon-tuan izanda zergaren kudeaketari buruz artikulua honetan jasotako araupetze berariazkoa, modu horretan igorritako likidazioa arauz jakinarazitako likidaziotzat hartuko da, eta ezin izanen dira apli-katu likidazioaren jakinarazpenari buruz aipatu ataletan ageri diren xedapenak. Likidazioaren ondoriozko zorra urteko edo seihileko ordainagiria-ren datatik hasita hurrengo hilabeteen ordaindu beharko da.”

11. artikulua. Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta Katastroei buruzko azaroaren 21eko 12/2006 Foru Legea.

Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregis-troari eta Katastroei buruzko azaroaren 21eko 12/2006 Foru Legeko 34.4 artikulua honela geldituko da:

“4. Aurreko idatz-zatian aipatutako balorazio ponentziak, berriz, honela sailkatuko dira:

a) Osoak, ponentziaren baitan udalerrri jakin bateko edo, udalez gairdiko balorazio ponentzien kasuan, eragin eremuko ondasun higiezin guztiak hartzen badira.

b) Partzialak, bere baitan udalerrri bateko edo gehiagoko eremu, poligono edo lurzati jakin bateko edo batzuetako ondasun higiezin homogeen jakin batzuk hartzen baditu edo, kasua bada, lurzati berezi bat eta bertan kokatutako ondasun higiezinak.

Balorazio partzialeko ponentzien determinazioak eranskin gisa gehituko zaizkio balorazio osoko ponentziari, behin onetsita.

Balorazio partzialeko ponentzietako bakoitzeko ondasunei zuzenean aplikatzekoak izanen dira haietan jasotako determinazioak. Eta ordezkari aplikaziokoak izanen dira, balorazio partzialeko ponentziekin kontraesanean ez dagoenetan, balorazio osoko ponentzietan jasotako determinazioak.”

Lehen xedapen gehigarria. Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen 27. artikuluan aipatutako diruaren balio-galera zuzentzeko koefizienteak.

2010. urtean hasten diren zergaldietan, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen 27. artikulua aipatzen duen diruaren balio-galera zuzentzeko koefizienteak, eskualdatutako ondare-elementuak eskuratu diren urtearen arabera, ondoko hauek izanen dira:

1983 eta aurrekoak	2,356
1984	2,134
1985	1,991
1986	1,893
1987	1,835
1988	1,759
1989	1,673
1990	1,605
1991	1,550
1992	1,498
1993	1,438
1994	1,382
1995	1,314
1996	1,252
1997	1,221
1998	1,207
1999	1,200
2000	1,194
2001	1,169
2002	1,156
2003	1,138
2004	1,126
2005	1,112
2006	1,091
2007	1,067
2008	1,034
2009	1,012
2010	1,000

Bigarren xedapen gehigarria. Inbertsioetarako erreserba berezia.

“Subjektu pasiboek zuzkidurak egiten ahalko dituzte Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen IV. tituluko XI. kapituluko 2. atalean aipatzen den erreserba bereziko, 2010eko urtarrilaren 1etik aurrerako lehen bi ekitaldietan lortzen dituzten irabazien kontura.”

Azken xedapenetan lehenena. Ekainaren 13ko 153/1986 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen Sozietateen gaineko Zergaren Xedapenen Testu Bategina aldatzea.

2010. eta 2011. urteetan hasitako zergaldien ondorioekin, Sozietateen gaineko Zergaren Xedapenen Testu Bateginaren 22.b.Hirugarrena artikulua, abenduaren 29ko 19/2005 Foru Legeak ezarritako idazketaren arabekoak, testu hau izanendu:

“Hirugarrena. Foru erkidegoko Administrazioako departamentu eskudunek gizarte-interesekotzat deklaraturiko kirol, kultura eta gizarte-laguntzako jardueren babes-kontratuen ondoriozko publizitate-gastuengatik ordaindu diren kopuruak 100eko 30 kendu ahalko da letra honetako lehen atalak aipatzen duen kuota likidotik. Horretarako, kasuko espedienteak tramitatuko dira departamentu haietan.”

Azken xedapenetan bigarrena. Nafarroako Foru Komunitateko Diru-bilketaren Erregelamenduaren aldaketa.

Uztailaren 2ko 177/2001 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Nafarroako Foru Komunitateko

Diru-bilketaren Erregelamenduaren 59.1.b) artikulua aldatzen da.

“b) Gerorapenak edo zatikapenak indarra duen bitartean zerga ordaintzera behartua dagoena Nafarroako Zerga Ogasunaren hartzekodun bihurtzen bada zerga itzulketa bat dela bide, kreditua ofizioz konpentsatzen ahalko da. Horrelakoetan, ordaintzeko dauden lehenbiziko epeetatik hasiko da, deusetan galarazi gabe horren ondorioz ordaindu gabe dauden kopuruak aldezturik mugaguneratzea eta bidezko diren interesak berriz kalkulatzeko.”

Azken xedapenetan hirugarrena. Arauak emateko ahalmena.

Nafarroako Gobernuak foru lege hau garatu eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak emanen ditu.

Azken xedapenetan laugarrena. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra, legean berean aurreikusitako ondorioekin.

F saila:
GALDERAK

Galdera, Osasun Departamentuaren web-orrialdean Laguntza Soziosanitarioari buruzko Foru Plana argitaratuta egoteari buruzkoa.**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak galdera egin du Osasun Departamentuaren web-orrialdean Laguntza Soziosanitarioari buruzko Foru Plana argitaratuta egoteari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko irailaren 18ko 91. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko urriaren 6an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Asun Fernández de Garaialde andreak galdera egin du Osasun Departamentuaren web-orrialdean Laguntza Soziosanitarioari buruzko Foru Plana argitaratzeari buruz (PES-243/09). Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

Laguntza Soziosanitarioari buruzko Foru Plana 2000ko ekainaren 27an onetsi zen, Gobernuaren erabaki bidez. Planaren helburuen artean dago Osasun Departamentuaren eta Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentuaren konpromisoa, bien artean lan integrala, koordinatua eta osagarria egiteari buruzkoa; hartara, hiru koordinazio-maila hauek sortu dira: zuzendaritza batzordea, batzorde teknikoa eta kasua koordinatzeko taldea.

Orduan ezarritako helburuak indarrean daude oraindik, nahiz eta urteotako ahalegina bideratu den laguntza soziosanitarioan lehentasuna izan behar zuela iritzitako biztanleengana: buruko gaitasun larria duten pertsonak.

Gaur egun indarrean daude hala helburuak nola departamentu horien artean lankidetzan ari zeko konpromisoa.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2009ko urriaren 5ean

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

Galdera, gaixoak laguntza espezializatura igortzeko eta bolanteak egiteko irizpideei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak galdera egin du gaixoak laguntza espezializatura igortzeko eta bolanteak egiteko irizpideei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko urriaren 2ko 96. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko urriaren 6an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Asun Fernández de Garaialde andreak galdera egin du gaixoak laguntza espezializatura igortzeko eta bolanteak egiteko irizpideei buruz (PES-251/09). Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

Oinarrizko Osasun Laguntzako Zuzendaritzak eta Laguntza Anbulatorioa Koordinatzeko Zuzendariordetzak irizpide berri batzuk hitzartu zituzten 2008an gaixoak laguntza espezializatura igortzeko eta bolanteak igortzeko, Oinarrizko Osasun Laguntzako laguntza-prozesua berrantolatzeke eredu berriaren proba-fasearen testuinguruan eta desburokratizatzeko neurri gisa.

Neurri hori arian-arian ezarri da, Iruñeko barrutitik hasita, non erabat ezarrita baitago.

Lizarrako barrutian ere ezarrita dago maiatzaren 7az geroztik.

Tuterako barrutiari dagokionez, lehenago HOST sistema informatikoa ezarri behar da, eta heldu den urrian ezarriko dela aurreikusten da.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2009ko urriaren 5ean

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

Galdera, gazteen sexu-joerari buruz 2008ko irailaren 26an onetsitako mozioari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du gazteen sexu-joerari buruz 2008ko irailaren 26an onetsitako mozioari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko irailaren 14ko 88. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko urriaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du gazteen sexu-joerari buruz (PES-237/09). Hona erantzuna:

Emakumeari laguntzeko zentroek urteak daromatxate gazteentzako sexu-hezkuntzako jarduerak egiten.

Sexu-transmisiozko infekzioei eta nahi gabeko haurdunaldiei buruzko banakako jarduerak egiten ari dira. Neska-mutiko gazteekin egiten dute hezitzaileek jarduera hori, hain zuzen ere ondoko gaien buruzko informazio eta aholku eske etortzen direnekin: infekzioei aurrea hartzea eta kontrazepzioa, sexualitatea, ernalkuntzaren kontrako larrialdi-tratamendua, haurdunaldiaren etetea (halakoetan, kasuaren jarraipena egiteko protokoloa aplikatzen da, pazientearen ezaugarriak kontuan hartuta antisorgailu eraginkor bat baliatzeko).

Taldeentzako jarduerak ere antolatzen dira: ikastetxeek eskatuta, sexu-hezkuntzari buruzko informazio tailerrak antolatzen dira.

Infekzioei aurrea hartzeari buruzko informazioa eta aholkuak ematen dituzten informazio-liburuxkak, ugalketa- eta sexu-osasunari buruzkoak, banatzen dira, bai eta antisorgailuei buruzko beste batzuk ere. Tailerretan parte hartzen dutenak bisitan joaten dira emakumeari laguntzeko zentro batzuetara; hartara, noizbait emakumeari laguntzeko zentro batera joan behar izanez gero, tokia ezaguna egingen zaie. Irakaskuntzako profesionalekin lan egiten da, eta arloari buruzko aholku ematen zaie, ikasgeletan gaia jorra dezaten.

– “Gela osasungarriak... nerabe trebeak” izeneko gida banatu da PDF formatuan. Sexualitatearen arloa lantzeko helburua duen gida hori Osasun Publikoak eta Hezkuntzak prestatu dute.

– Gazteriaren Kontseiluak antolatutako Gozamenez/Con mucho gusto izeneko programan laguntzen dugu. Programa horren bidez, gazteen aisialdirako tokietara hurbiltzen gara, jolas-jarduerak, tailerrak, antzerkia, ipuin-kontalariak... egiteko.

– Afektibitate eta sexu hezkuntzari buruzko ikastaroak ematen zaizkie, Gazteriaren Kontseiluak antolatuta, aisialdiko monitoreei eta gazte-bitartekariei.

– Gozamenez programari buruzko kontsultak argitzen dira web orriaren bidez. (700 erantzun eta 12.300 bisita 2008an).

Iruñean, 2009ko urriaren 5ean

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

Galdera, podologiako laguntzari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du podologiako laguntzari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko irailaren 14ko 88. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko urriaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeari atxikitako parlamentari Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du

podologiako laguntzari buruz (PES-239/09). Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

Osasun Departamentuak ez du inolako denbora eperik ezarri Nafarroako Foru Komunitateko Arreta Podologikoari buruzko Adituen Lantaldeak eginiko gomendioak abian jartzeko.

Gomendioak abian jartzeko, areagotu egin behar dira Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren zerbitzuen zorroa, eta, hortaz, azterlan bat egin beharko da alde zuzenetik, hala ekonomia-aren nola administrazioaren ikuspegitik, are gehiago egungo egoera ekonomikoan.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2009ko urriaren 5ean

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

Galdera, jakiteko Osasun Departamentuak noiz aldatuko duen 70/2003 Dekretua.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du jakiteko Osasun Departamentuak noiz aldatuko duen 70/2003 Dekretua.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko irailaren 18ko 91. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko urriaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeari atxikitako parlamentari Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du, jakiteko Osasun Departamentuak noiz aldatuko duen 70/2003 Dekretua (PES-241/09). Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

Nafarroa da, gaur egun, aho-hortzetako osasunaren arloan zerbitzu gehien ematen duen erkidegoa Estatuan.

Haur eta gazteen Aho-hortzetako Osasun Laguntza izeneko programak ziurtatzen du 6tik 18 urtera bitartekoek doan izanen dutela hortz-laguntza. Gaur egun, Espainian halako laguntza-mailak ematen dituen erkidego bakarra da.

Minusbaliatuentzako hortz-laguntzako programa. Programa horren bidez, hortz-laguntza ematen zaie minusbaliotasuna % 75ekoa edo hori baino handiagoa duten minusbaliatu psikiko eta fisikoei.

Agerian geratu zenez, minusbaliatu psikiko eta fisikoentzako hortz-laguntzako programak zerbitzua emanen zien 2009an minusbaliotasun psikikoa % 70ekoa edo hori baino handiagoa duten gaixoei, eta 2010etik aurrera, berriz, minusbaliotasun psikikoa % 65ekoa edo hori baino handiagoa dutenei.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2009ko urriaren 5ean

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcelly

Galdera, hegaztien gripea dela-eta hartutako neurriei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du hegaztien gripea dela-eta hartutako neurriei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko irailaren 18ko 91. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko urriaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Hegaztien gripea dela-eta hartutako neurriei buruz (PES-244). Hona Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna.

Hori jakinarazten dut, Parlamentuko Erregelamenduen 192. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2009ko urriaren 6an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria

Hegaztien gripearen kasu bat agertu ondotik Nafarroako Gobernuak hartutako neurriei buruzko txostena

Hegaztien gripearen eraginari aurre egiteko neurri komunitarioei buruzko 2005eko abenduaren 20ko 2005/94/CE zuzentarauak ezartzen du zer neurri hartu patogenotasun gutxiko hegaztien gripe kasu batean. Arau horrek ezartzen ditu, oinarritzko arau komunitario gisa, hegaztien gripearen aurkako borrokaren eta kontrolaren oinarriak. Hegaztien gripearen eraginari aurre egiteko neurriak ezartzen dituen apirilaren 3ko 445/2007 Errege Dekretuaren bidez egin da ordenamendu juridikorako transposizioa Espainian. Errege dekretu hori garatze aldera, Ingurumen, Landagune eta Itsas Ingurueta-ko Ministerioak, autonomia erkidegoekin lankidetzan, protokoloak eta kontrol planak prestatu ditu (www.mapya.es webgunean kontsulta daitezke).

2009ko zaintza plana aplikatzeko ohiko jarduketan harira, lagin ofizialak hartu ziren Nafarroako ahate-haztegi batean, eta Algeteko Erreferentziako Laborategi Nazionalera igorri ziren aztertzerako lagin horiek. Emaiza positiboa izan zen H5-ari dagokionez, eta patogenotasun gutxikoa zela baieztatu zen. Ikerketa epidemiologikoak ez zuen patologia-zantzurik atzeman.

Positiboa jakinarazi ondotik, aipatu araudian eta protokoloetan aurreikusitako neurriak hartu ziren:

- Patogenotasun gutxiko fokua ofizialki jakinaraztea Ingurumen, Landagune eta Itsas Ingurueta-ko Ministerio-ko Abereen Osasunaren Zuzendariorde-tza Nagusiari eta Albaitaritzako Osasun Alertarako Batzorde Nazionalari.

- Kasuko ustiategia eta harekin harreman epidemiologikoa dutenak immobilizatzea.

- Zazpigarren parke horretako 3.625 ahateak bertan hiltzea, eta gorpuak transformazio-planta batean suntsitzea.

- Kasuko parkea garbitzea eta desinfektatzea.
- Kasuko ustiategiko parke guztien ikuskapen klinikoa egitea eta laginak hartzea.

- Harekin harremana duten ustiategien ikuskapen klinikoa egitea eta laginak hartzea.

- Inkesta epidemiologikoa egitea ustiategitik 5 kilometrora bitarteko erradioan.

Ustiategian dauden gainontzeko parkeak –1.a, 2.a, 3.a, 4.a, 11.a eta 13.a– aztertu ondotik (9.ean errepikatu egin zen azterketa), H5arekiko emaitza positiboa atzeman zen 11. parkean, bateragarria zena patogenotasun gutxiko andui batekin; ez da atzeman, ordea, hilkortasun ezohikorik, ezta gaitxotasunarekin bateragarriak diren zantzu klinikorik ere. Hamaikagarren parke horretako 2.598 ahateak bertan hiltzeari ekin zitzaion, eta gorpuak transformazio-planta batean suntsitu ziren ondoren, eta parkea garbitu eta desinfektatu zen.

Kasuko instalazioak garbitzeko eta desinfektatzeko lanak uztailearen 2an bukatu ziren. Harrezkeror, aplikatutako zaintza-programa sakonak ez du identifikatu beste gaitxotasun-susmorik.

Abereen Osasunaren Munduko Erakundearen Lehorreko animalientzako osasun kodeko 10.4.3. artikulua ezartzen duenez, herrialde batek bere ohiko estatusa berreskuratu ahalko du ukitutako ustiategi guztiak garbitu eta desinfektatu ondoren hiru hilabete igarotakoan, baldin eta ez bada gaitxotasunaren foku berri bat agertzen.

Hortaz, hiru hilabete igaro direlarik, Ingurumen, Landagune eta Itsas Ingurueta-ko Ministerio-ko albaitaritzak Abereen Osasunaren Munduko Erakundeari jakinarazi diote hegaztien gripearen eraginetik libre dagoen herrialdearen estatusa berreskuratu duela –aitorpen hori nahitaezkoa baita–, 2009ko urriaren 2tik aitzina.

Iruñean, 2009ko urriaren 5ean

Abeltzaintza Zerbitzuko zuzendaria: Miguel Ángel Martínez Pérez

Galdera, Bideko Autobiaren ustiapena dela-eta Parlamentuak onetsitako mozioa betetzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du Bideko Autobiaren ustiapena dela-eta Parlamentuak onetsitako mozioa betetzeari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko irailaren 25eko 94. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko urriaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako Juan José Lizarbe jaunak galdera egin du mozio bati buruz. Izan ere, mozio horren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen da Donejakue bideko autobia esleitzeko, eraikitze eta ustiatzeko baldintza-orrien eta kontratuen ondoriozko zorra berriz dimentsiona dezan. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

- Nafarroako Gobernuak ez du inongo jarduerarik egin 2009ko martxoaren 12ko mozioa dela-eta. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premia-tzen zen Donejakue bideko autobia esleitzeko, eraikitze eta ustiatzeko baldintza-orrien eta kon-

tratuen ondoriozko zorra berriz dimentsiona zezan.

- Ez jarduteko arrazoia izan da ezinezkoa dela premia-tutakoa betetzea. Lehenbizi, adierazi beharra dago ez dagoela Nafarroako Gobernuan inongo zorrik jasota "Iruña-Logroño Autobidea egiteko, kontserbatzeko eta ustiatzeko herri lanak" itzalbidesariaren bitartez esleitzearen ondorioz; izan ere, SEC-95 araua bete denez eta esleipen-hartzaileari kontratuaren arrisku gehienak transferitu zaizkionez, inbertsioa haren balantzean kontatzen baita.

- Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren ordainketa-konpromisoak urtez urte KPlaren arabera gaurkotutako tarifen arabera eta autobide-tik zirkulatzen duen trafikoaren arabera gauzatzen dira.

- Jakitera eman beharra dago, 2009ko bi parametro horietan izan den hazkunde negatiboa ikusita –2008ko urtearekin alderatuta–, 2009an ordaindu beharreko zenbatekoak behera egiten duela.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren Testu Bateratuko 192.1 artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2009ko urriaren 6an

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: Laura Alba Cuadrado

Galdera, Corellako Encofrados Martínez Mellado, S.L. enpresari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Txentxo Jiménez Hervas jaunak galdera egin du Corellako Encofrados Martínez Mellado, S.L. enpresari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko irailaren 25eko 94. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko urriaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Txentxo Jimenez Hervas jaunak informazioa eskatu du Encofrados Martínez Mellado, S.L. enpresari buruz (PES-255/09). Hona Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariaren erantzuna:

Adierazi beharra dago Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuak ez duela jasota eta inongo salaketarik ez dela aurkeztu (ez Arriskua-ren Prebentziorako eta Lanaren Zuzendaritza Nagusian, ez Lan Ikuskatzaitzaren) langile immigranteek babesgabetasun egoerak pairatzeari

buruz eta enpresak, lan harremanetan eta ordain-sarien ordainketa betetzean, haietaz aprobetxatzeari buruz.

Enpresaren berrikuspen erregularrei dagokierenez, Lanaren eta Gizarte Segurantzaren Ikuskatzaitzak eginiko jardueren zerrenda igorri dizkigu, 2003tik hasi eta gaur arte.

Galdetzen da, halaber, ea enpresa hori inolako herri-lanen esleipenetan onuradun izan ote den zuzenean, edo herri-lanen esleipenen onuradun suertaturiko enpresek azpikontratatu izan den. Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuak ez du horri buruzko informaziorik.

Lan Ikuskatzaitzaren txostenak organo eskudunari eskatu beharko zaizkio. Nolanahi ere, organikoki, Lan eta Immigrazio Ministerioaren menpean dago.

Iruñean, 2009ko urriaren 9an

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria:
José María Roig Aldasoro

(Oharra: aipaturiko eranskina foru parlamentarien eskura dago 7-09/PES-00255 espedientearen ondoko web helbidean hain zuzen:

<http://actividad.parlamento-navarra.es:8080/AgoraWeb/>